

...eta! Kitto!

2017-X-27

1032 zkia.



Guztiondako herri krosaren arratsaldea



poblenou, s.l.
bidaiak
GC 65 MD

NORVEGIAKO FIORDOAK

- BILBO-BERGEN-BILBO CHARTER BEREZIA!
- Guztia barne!
- Plaza mugatuak!

Arragueta, 7 / 943 12 81 50



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

24 orduko
urgentziak

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak



Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



E.I.T.

ERAIKINEN
TRUKAKAPEN
TEKNIKOA
info@ajttoficina.com tlf. 945 20 12 30
AJT zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR

PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
egoluz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



TREJO

GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)

eskutitzak

– Kultura eta gazteak –

Jakin badakigu Eibarren ekintza kultural asko gauzaten direla urtean zehar, baina gehienak umeei eta pertsona helduei zuzendutakoak dira. Jaietan sartu barik, horrek aparteko kapitulua merezi baitu, bada 14-29 urte bitarteko adin taldea eskaintza gutxi duena eta zaila dena ekintza kulturaletara erakartzeko. Beraz, Udalak bi zeregin nagusi ditu biztanleriaren segmentu horri begira: batetik, lehendik dagoen eskaintza aintzat hartzea; kultura beharizan eta eskubide bat dela kontzientziatuz. Bestetik, gazteak kultura kontsumitzera eta sortzera bultzatuko dituen ekimen berriak abiatzea. Erabiltzaile izatetik haratago, parte-

hartaile ere izan behar dute herritarrek; paradigma aldaketa horretan dago etorkizuneko gakoa. Udalak politika kulturala zabaldu eta gizartearekin elkarbanatuz eraiki behar du. Zentzu horretan baliagarri izan daitezkeen proposamen hauek plaza-ratzen ditugu: ikuskizunetarako dohaineko edo deskontu-bonuak, gestio partekatutako Kafe Antzoki bat, hobekuntzak Coliseoaren kudeaketan, kale-musika eta horrekin loturiko ekimen pribatuei erraztasunak, liburu azoka zein antzerki jardunaldien biziberritzea eta gazteen musika taldeen arteko lehiaketa.

Eibarko EGI

– Nagusien ibilaldian emandako laguntzagatik esker ona –

Untzagako Zentro Sozialak bere esker ona adierazi nahi die Gipuzkoak Pertsona Nagusien Ibilaldi Probintzialarekin inplikatu ziren Eibarko hiriari, eibartar guztiei, instituzio, talde eta enpresei, Eibarko nagusientzat garrantzi handia duen jardueraren

inguruan emandako laguntzagatik. Ekitaldian parte hartzeko Gipuzkoa osotik etorri ziren guztiek ere jakin zuten eskainitako laguntza hori eskertzen eta baloratzen. Eskerrik asko!

Felix Elkoroiribe (Untzagako Zentro Soziala)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LUZE. - Gaztelerazko *'largo, prolongado'*. *"Bidebarrieta da Eibarko kalerik luziena". "Ikasbidiak luziak dira eta bizixa laburra"*.

Altua, garaia. *"Haren anaia luze-luzia, nere sasoi ingurukua"*.

Astiro, geldiro. *"Luze doa gaur arratsaldia"*.

Gaztelerazko *'cuan largo'*. *"Hori esanda, luze jausi zan atzeruzka"*

astean esanak

"Gaur egun eskola-segregazioa salatzen dugunean, ez da hainbeste egoera aldatu dela, baizik eta heldu diren azken etorkinen umeen koloreek agerian utzi dituztela eskola-sistemako bandokeria eta klasismoa berriz ere. Islandia aipatzen hitzez betetzen zaigu ahoa. Baina benetan nork nahi du eredu bakarreko eskola sistema bat eta %99 publiko? Eskola kristauak, frankismo sasoiaren euskaraz ikasi ahal izateko sortu ziren ikastolak, eskola 'nazionalak', irakaskuntza 'libre' koak, kooperatibak... gure eskola aukera!"

(RUBEN SANCHEZ, EUSKARA IRAKASLEA)

"Nik asko estimatzen dut jendearen borondatea, baina ez dago inolako objektibotasunik. Beti esan izan dut bigarren mailan gabiltzala. Betidanik izan da horrela. 60ko hamarkadan euskaldunek egiten zutena bigarren mailakoa zen. Ezin dugu alderatu garai hartan frantsesek edo ingelesak egiten zutenarekin. Zabaletak 1980. urtean Everest oxigenoarekin eta xerpekin igo zuenerako, Messnerrek bakarrik egina zuen igoera iparraldetik. Guk 1993an Everest igo genuenean, ordurako izugarriko igoerak eginak zeuden. Mundu guztian ba al dago euskaldunek eginiko igoeraren bat erreferentzia moduan hartzeko? Ez, argi eta garbi"

(ALBERTO IÑURRATEGI, ALPINISTA)

"Ilea tindatzen hasi nintzen orain dela urte batzuk. Gizonezkoa banintz, 'zilarrezko azeri' erakargarria izateko hautagaia izango nintzateke dagoeneko, titulua jasotzeko inolako aukerarik gabe, noski. Horren ordeaz, dirua gastatu behar dut, bi hilabetean behin gutxi gorabehera, 'zilarrezko mofeta' ez izateko. Ilea tindatuko ez banu, ezagutzen ez nautenek naizen baino zaharragoa naizela pentsatuko lukete. Ezagutzen nautenek, zerbait gertatu zaidala. Edo katuen artean bizi naizela orain. Edo bakarrik hitz egiten dudala. Ez dudala inor aguantatzen. Ilea besterik ez da, hil ondoren gugan bizirik jarraitzen duen gauza bakarra"

(ANA MALAGON, ZUTABEGILEA)



Zaintzailliak euren buruak zelan zaindu irakasteko ikastarua emongo dabe azaruaren

Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Sendian programaren barruan antolauta, azaruaren "Norbere burua zaindu besteak zaintzeko" ikastarua emongo dabe, duan. Kursua Eibarren erroldatuta dagoazenez izango da, Portalean, azaruaren 9, 13, 16, 20 eta 27xan, 15:00etatik 17:00etara. Matia Fundazioaren adituak emongo dabe, gazte-leraz, eta sei saio teoriko-praktiko izango dira guztira. Izena emoteko epia zabalik dago, Pegoran (azaruaren 3an itxiko da). Gitxienez 12 partehartzaile eta 20 gehixen jota izatia eskatzen dabe antolatzailliak. Informaziño gehixagorak udalaren web orrixan (www.eibar.eus) begiratu leike.



Peruko nekazarixen aldeko bazkari arrakastatsua

Aurreko urtietan bezala, oinguan be arrakasta haundixa lortu dau Egoaizia eta Aldatzen-en eskutik aurreko zapatuan egin zan "Jana ez da txantxa" bazkarixak. Aurten laugarrenez egin dan bazkarirako txartelak betiko martxan saltzia lortu dabe atzera be eta batutako dirua nekazarixeri laguntzeko Perun martxan dittuen proiektutara bideratuko dabe.

Errigoraren kanpaiñarako eskaerak azaruaren 4ra arte jasoko dittue

Atzo hasi ziran eskaerak jasotzen eta, interesa dakanak, azaruaren 4ra arte izango dau kanpaiña honetarako prestatu dittuen kontserba-loteak (zurixa edo bal-tza, aukeran) erosteko aukeria. Eskaerak internet bidez (www.errigora.eus helbidian) jasoko dittue eta, horrez gain, Eibarren LAB sindikatuaren egoitzan eta hainbat tabernetan eskaeria egitteko aukeria be izango da. Eskatutakuak jasotzeko eguna, barriz, abenduaren 4a (astelehena) izango da eta lote-billa Untzagako jubilau etxera juan biharko da, 17:00etatik 20:00etara bittartian.



asteko
670.342
datua

euro jasoko dittu Eibarrek udal finanziaziñorako Fondo Foraletik. Kopuru horrek %3,84ko igoeria dakar iazko portzentajiekin konparatuta eta biztanle bakoitxeko 662 eurokoa da. Horrez gain, ez da aurrikusten Udalak dirurik bueltatu biharko dabenik.



Kintada bi alkartu ziran zapatuan

Urte jakin batian jaixotakuak alkartzeko asmuarekin antolatzen diran bazkarixak gero eta ugarixaguak dira eta, azken urtietan, holakuak urriko asteburuak betetzen dittue gure herrixan. Aurreko zapatuan, adibidez, talde biren bazkarixak egin eben bat kalendarixuan: 1957. urtian jaixotakuak Txaltxa Zelaiko eskillaretan egin eben taldiaren argazkixa eta 1962xan jaixotakuak, barriz, udaletxeko patixuan.





Gipuzkoa osotik etorritako jubilauak alkartu ziran Eibarren

laz egindakuari jarraituta, aurtan be Eibarren egin da Gipuzkoako jubilatuen eta pensionadunen alkartuak antolatutako Pertsona Nagusien Ibilaldi Probintziala. Gipuzkoako 73 alkarte eta jubilatuen etxeren partehartzaia izan eban zapatuko ekitaldixak eta ixa 700 jubilatuen batu ziran horren inguruan. Herrixa alde batetik bestera ziharkatu eban ibilbidiari Urkizun ekin zetsen, 11:00ak aldera, eta eurixa egin arren umoretsu eta kantuan hasi eban eguna. Untzagan amaittu eban martxa eta, euren eskaeriak gogorarazi eta gero, Armerixa Eskolara juan ziran bazkaltzera.

Alfako bihargiñak soldatak berreskuratzea eskatzen

Enpresako ugazaberi jaitsieren aurretik zittuen soldatak berreskuratzea eskatzeko **konzentraziñua** egin eban Alfako bihargiñak aurreko zapatu eguardixan. Ordezkarri sindikalak azaldu dabenez, 2010. urtian soldatak izoztu zittuenetik erosteko ahalmenak nabarmen egin detse behera eta soldatak be asko bajau dirala salatu dabe, 2012xan %10etik %30era izandako murriztia tartian. Horrekin batera, Industrias GOL saltzerakuan taldiak jaso zittuan 22 millioi euroak nun daguazen galdetuta, horren inguruko azalpenik ez detsela emon salatu dabe. Bixen bittartian, enpresako arduradunak lehengo soldatetara bueltatzeko dirurik ez daguala baiño ez detse argittu



autuan

1944 ETA 1950-KO KINTADAK

Azaruaren 4an ospatuko dabe euren jaixa 1944xan jaixotakuak: 13:00ian Arkupe tabernan alkartu eta zapixak banatu ondoren piskolabisa eukiko dabe. Talde argazkixia 14:00xetan egingo dabe Untzagan eta bazkarixa 15:00etan, Unzaga Plaza hotelian. Gero dantzaldixa egongo da. Izena emoteko Laboral Kutxako 3035 0078810781052201 kontuan 60 euro sartu bihar dira, izen-abizenak ipiñita. Informaziño gehixagorako 695715314 (Tomas) edo 667718188 (Alberto) telefonuetara deittu.

1950ian jaixotakuen bazkarixa, barriz, azaruaren 18xan izango da Unzaga Plaza hotelian: 13:00ian Untzagan batu, zapixak banatu eta argazkixa egin eta gero, Arkupe tabernan piskolabisa eukiko dabe. Bazkarixa 14:30xetan hasiko da eta zuzeneko musikarekin girotuko dabe. Juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu Euskadiko Kutxako 30350023960231156084 kontuan, izen-abizenak ipiñita (azken eguna, azaruak 14).



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
 Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia BERRIA
10) Neurologia	19) Psikologia BERRIA

herriko kaleei

begirada

ZEZEN BIDE

egilea:
JOKIN HAZASDibujo Eskolarekin
elkarlanean

Parte hartu zeben "paisajisten" talde-argazkixa.

Herriko paisajia marrazten ibilli ziran zapatuan

"Paisaia bizia. Paisaien eraikuntza Gipuzkoan" goiburuari jarraituta Gipuzkoako hainbat herritan egiten diharduen 2017ko Ondarearen Europako Jardundixen harira, aurreko zapatuan "sketchcrawl" erako dibujo topaketia egin zan Eibarko Armagintzaren Museuan. Tarteka eurixa eginda be, edade guztietako dibujantiak gure herriko txoko diferentiak euren kuadernuetan marraztu zittuen. Jardundixen egitarauaren barruan, bestalde, bigarren ekitaldi bat egingo da gurian, azaruaren 9xan, Eibarko mugarririk ezagutzera emoteko asmuarekin. Udal Artxibuan izango da saiua, 09:00etan hasitta, eta parte hartzeko interesa dakanak aurretik izena emon biharko dau 943 708 423 telefonora deittuta edo egoibarra@eibar.eus helbidera idatzitta.



Eskualdeko gaztiak protagonista izan ziran asteburuan

Eskualdeko gaztaiekin aurreko eguenian egin-dako pintxo-potearekin abiatu zan II. Debabarreneko Gazta Astea eta, horren eskutik, interes haundixa eragin eban dastaketia egin zan barixakuan. Domekan, barriz, Eibar eta inguruko basarrixetan ekoizten diran gaztai ezberdiñak probatzeko eta erosteko aukeria egon zan, Untzagan goizez egindako azokan. Horren inguruan antolatutako erakustaldik eta taillarrereri esker herriarrak gaztagintza bertatik bertara ezagutzeko primerako aukera euki eben.

Eibartarren babesa jaso eben Amaia Agirregabiria eta Iker Rokandiok

Gipuzkoako Auzitegixak Amaia Agirregabiria Pasaiaiko alkate ohiari eta udal horretan jarduneko idazkari modura biharrian ibilli zan Iker Rokandio eibartarrari 2 urte eta 6 hillebeteko kartzela zigorra ezarri detsela eta, bixeri alkartasuna azaldu eta babes-argazkixa egitteko jende mordua alkartu zan aurreko zapatuan Txaltxa Zelaixan. Bi auzipetueri justizia oztopatzia eta prebarikaziñua gozti detse 2013an Pasaiaiko herritar baten eta udaltzain batzuren arteko liskarrian "alde bixen hobebiharrez" bitartekari moduan esku hartzia-gaittik. Udaltzain berberak salatuta, lau urte pasau eta gero ailegau da epaitegixan ezarririk zigorra.

Kartzelaratzeko aginduren barri izan eta segiduan hasi ziran alkartasuna eta babesa adieratzeko ekimenak antolatzen eta, horrekin batera, kartzela zigorra ahal dan neurrixan arintzeko asmuarekin, siñadurak batzen dabilta: "Amaiak eta Ikerrek euren lantoki, bizi-



leku zein euskal gizartian sakon errotuta daguazela ondo frogatu dabe. Horregaittik, sustraixak eskintzen daben bermea aintzat hartuta, hamen siñatzen dogunak dagokionari eskatzen detsagu Amaia eta Iker kartzela zigoretik libratzeko edo, bestela, espetxealdixa ahalik eta laburrena izatia, bixeri 3. gradua aplikauta". Eibarren, Buenos Aires, Ez Dok, Albert, Juanito, Ipurua, Xania, Kasino eta Areto tabernetan eta Toribio Etxebarriako estankuan laga dittute siñadurak jasotzeko orrixak.

Barrikuntza sozialaz eta tokiko garapenez gogoeta egiteko jardunaldixa

Debegesak, Elhuyar Aholkularitzarekin alkarlanian, eta Diputaziñuaren babesarekin, "Debabarrena Berritzen, Debabarrenean Berrikuntza Soziala eraginez" ekimena garatu dau eta, hainbat eragillerekin barrikuntza sozialian sakontzeko prozesua landu eta gero, jardunaldixa antolatu dabe datorren asteko barixakurako, 09:00etatik 12:00xetara Debegesaren egoitzan. Ekimenaren inguruko emaitza eta ondorixuak aurkeztiarekin batera, barrikuntza sozialari lotutako hainbat esperientzia arrakastatsuren barri emongo dabe, bestiak beste. Izena emoteko epia martitzenian itxiko dabe eta horretarako 943820110 telefonora deittu (Maider Gogorza) edo komunikazioa@debegesa.eus helbidera idatzi leike.



Jarduera guztiak euskeraz izango dira, baiña euskeraz ulertzen ez dabeneri ez jakuez atiak itxiko; antolatzailliak izena emo-

terakuan hori adierazteko eskatu dabe, ulermena bermatzeko bittartekuak ezartzen ahaleginduko dira eta.



Ekualdeko odol-emotailiak euren egun haundixa pasau eben Eibarren aurreko zapatuan. **Maialen Belaustegi**

Eibarko 14 odol-emotaileri errekonozimendua

Debagoiena eta Debabarreneko odol-emotailiak urteko batzarrara egin eben aurreko zapatuan Eibarren eta, betiko moduan, batzarrarekin batera omenaldixa egin zetsen urtietan odola emoten daben hainbat boluntarixori. Unzaga Plaza hotelian danak alkarrekin bazkaldu aurretik, 25, 40, 50 eta 75 bider odola emon dabeneri, herrika antolauta, diplomia eta oroigarrixa banatu zetsazen Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak. 25 aldiz odola emotiaren omendu zittuen eibartarrak Joseba Arana, Elisabet Zialzeta, Eduardo Uribe, Jon Ugarteburu, M^a Amor Arakistain, Javier Gonzalo, Unai Elorza eta Roberto Gomez dira.; 40 aldiz odola emotiagaittik, barriz, M^a Pilar Arregi eta Arrate Osoro omendu zittuen; 50 aldiz emotiagaittik, Angel San Roman; eta 75 donaziño egittiagaittik omendutakuak Iñigo Muñoa eta Eduardo Alvarez dira.

2.000 euroko Gabonetako OTARRA



Gaur eta bihar kalean erosteko aukera

Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)

SALMENTA LEKUAK:

El Corte Ingles, ...eta kitto!, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echetto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu



IÑAKI BAGLIETTO ARRESE

III. urteurrena
(2014-X-24)

Zure kuadrilakook gogoan zaitugu



Xabier Narbaiza, Eneritz Arizmendiarieta eta Ane Campos (ONEIÑ)

“Bezeroen beharretara egokituko ditugu saskiko produktuak”

Eskualdeko nekazari eta bezeroak era zuzenean batzeko kontsumo taldea osatu dute Xabier Narbaiza eta Eneritz Arizmendiarietak Ane Campos dietistarekin elkarlanean. Bezeroen beharretara egokitutako produktu osasuntsuak eskainiko ditu ONEIÑek, eta bezeroen eskura jarriko dira astelehenero Hapiick-ek Eibar eta Ermuan dituen takila adimenduetan. Gainera, saskian jasotako produktuak prestatzeko errezetak emango zaizkie bezeroei.

– Nola funtzionatuko du Oneiñ kontsumo taldeak?

Lehenengo, bezeroak izena emango du, profil ezberdinak aukeratu ahal izateko liburuxka bat emango zaio, eta bere bizitza estilora eta beharretara gehien egokitzen dena hautatuko du. Perfil baikoitzak plan nutrizionala izango du, eta gehien bat Debabarrenekoak eta ‘kilo-

metro 0’ deitutako produktuz beteriko saskia jasoko dute astero bezeroek. Horrez gain, errezeta batzuk jarriko ditugu bezeroen eskura. Ezin dira aukeratu astero jasoko diren produktuak. Bezeroa Hapiick makina batera joango da, eman- go zaion kodea markatuko du eta egokitz- en zaion kaja irtengo zaio. Bertan pro- duktuak eta menua aurkituko dira; eta

menuan izartxo bat agertuz gero, hiru hi- labeterik behin banatutako gida batean menu hori prestatzeko errezeta aurkitu daitekeela adierazten du.

– Euren saskia prest dutela jakiteko abisua jasoko dute bezeroek?

Astero egun berean banatuko dira sas- kiak, astelehenetan. 09:30ak inguruan es- kuragarri izango dute eta 24 ordu egongo dira bertan. Hapiick-en sartu beharko du- ten kodea SMS bitartez iritsiko zaie.

– Nolako profilak zehaztu dituzue?

Hiru oinarri hartu ditugu kontutan: kirola- ria, arrunta eta beganoa. Gero, kantita- teari dagokionez, pertsona batentzako, bi- rentzako edo familia osorako izan daiteke saskia. Hori kontutan izanda, aldaerak egon daitezke. Bestetik, proba pilotu mo- duan jarriko dugu martxan Oneiñ, eta be- zeroen iritzia jasoko dugu hilero. Hori kon- tuta izanda, euren beharretara egokituko ditugu saskiko produktuak.

– Nola eman daiteke izena?

Isasiko ‘Eibar Sasoian’-en lokalean ko- katzen den Ane Campos dietistan, oinei- ninfo@gmail. com helbidera edo Oneiñen Facebook eta Twitter orrietara idatzita, edota 688 61 96 40 telefonora deituta. As- te honetan Eibarren Ermuan proiektua aur- kezteko ekitaldi bana egin ditugu, eta ge- ro, San Andresetan informazio-puntua ja- rriko dugu, Oneiñ ezagutu eta izen-ema- tea ahalbidetzeko.





PUBLI RESA
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

-  merchandising
-  serigrafia
-  lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.eus

Aurreko asteko eguenean inauguratu zuten Eibarko Txikito kalean Eibar Coworking. Somos Asesores aholkularitzak 25 urte bete dituela eta, horren aitzakiarekin bulego berria zabaldu dute, aurretik zegoenaren aldamenean, eta horrekin batera ekintzaileentzat zerbitzu berria emateko gunea, elkarlanerako pentsatuta dagoen Eibar Coworking sortu dute. Horren koordinazioaz arduratuko den VANESA HORTASek azaldu dizkigu proiektu berriaren nondik norakoak.

www.eibarcoworking.com E-posta: eibarcoworking@gmail.com Tel. 943 50 78 63 / 688 73 42 92

VANESA HORTAS (Eibar Coworking):

“Ekintzaileei behar dituzten baliabideak eta elkarlanerako tokia eskaintzeko sortu dugu Eibar Coworking”



- Nolatan sortu duzue Eibar Coworking izenekoak?

Enpresa edo negozio berria martxan animatzen diren ekintzaileek izaten dituzten premiei erantzuteko asmoz abiatu da Eibarcoworking proiektua, Somos Asesores aholkularitzaren eskutik. Ekintzaileak batzeko tokia izatea nahi dugu, elkarrekin lan egiteko, ideiak partekatzeko, behar duten informazioa jasotzeko... aukera izan dezaten. Elkarlanerako eta lankidetzarako espazioak sortuz, kostuak murriztera eta produktibitatea hobetzera bideratuta dagoen “ekonomia kolaboratiboa” delakoaren inguruan krisiaren ondoren sortu zen “coworking” filosofia dago oinarrian.

- Zertan bereizten da zuen eskaintza herrian ekintzaileentzat martxan dauden beste zerbitzu batzuekin alderatuz gero?

Bulegoak alokairuan eskaintzen dituztenean edo enpresa inkubagailuekin konparatuz gero, guk eskaintzen duguna espazio malgu bat da, alokairu kontratu itxi bat izateko premia barik autonomo eta “freelance” modura dihardutenentzat lanerako tokia.

Izan ere, interesa dutenen beharren arabera, horietara moldatzen diren tarifa ezberdinak daude aukeran.

- Baina hori baino gehiago ari zarete eskaintzen, ezta?

Hala da, ekintzaileentzat lagungarriak izan daitezkeen beste zerbitzu batzuk ere emango ditugu. Elkarlana sustatzen ahalegindu nahi dugu eta horretarako, besteak beste, networking ekitaldiak antolatzeko asmoa daukagu. Horrekin batera, proiektuko partaideek eskaintzen dituzten zerbitzuak erakutsi eta ezagutzera emateko eskapartea ere izango da Eibarcoworking, elkarlana, sinergiak sortzea eta ideiak zein ezagutzak partekatzea ahalbidetuz. Bere etxean bakarrik lan egiten duen edozeinek lanerako toki egokia erabiltzeko aukera izango du, beharrerako giro aproposarekin eta, gainera, beste profesional batzuekin batera ideiak partekatzeko tarteak ere izango du. Gainera, ohiko martxatik kanpora formakuntzarako zein bestelakoak lantzeko ekitaldiak, ikastaroak eta tailerrak antolatzeko aukera ere izango da. Gainera, zerbitzua ahalik eta zabalena izateko, Inguruko zein Espaniako hiri ezberdinetan martxan dauden beste coworking batzuekin batera sarean egongo da Eibarkoa ere.

- Lokalak lanerako behar diren baliabideak eskaintzen dituela aipatu duzu. Zeintzuk dira baliabide horiek?

Bulego birtual modura erabiltzeko behar diren zerbitzu guztiekin batera bilerak egiteko gela bat daukagu, lokaletik irten barik zerbait jan nahi izanez gero horretarako prest dagoen sukalde txiki bat ere badago, atseden hartzeko tokia... Eibarcoworking proiektuarekin bat egitera animatzen direnek baliabide hauek eta beste batzuk erabiltzeko aukera izango dute.



PLANO CORTO KULTUR ELKARTEA

Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

Plano Corto elkartearen helburua laburmetriak eta ikusentzunezko gaiak sustatzea eta zabaltzea da. *Asier Errasti* film laburren jaialdia - Javier Aguirresarobe Saria antolatzen dute urtero udalarekin batera.

Ekintza nagusiak

18. edizioa beteko du aurten *Asier Errasti* film laburren jaialdiak eta azaroaren 6tik 10ra bitartean egingo da. Aste horretan, astelehenetik ostiralera, edizio honetarako aukeratu diren film guztiak proiektatuko dituzte Coliseoan, 20:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da. Azaroaren 11an, zapatuan, sari-banaketa ekitaldia izango da Coliseoan bertan. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte proiektzioak ikustera joan daitezela.

Bestalde batetik, aurrera begira, aukeratu gabe gelditu diren filmekin aire libreko sesioak antolatzea gustatuko litzaieke. Horrela, lehiaketan aurkeztutako lan gehienak ikusteko aukera izango luke jendeak.



Webgunea: planocorto.es
Telefonoa: 943 20 26 97
E-maila: festivalcortoseibar@gmail.com
Kontaktua: Oscar



Aurten 18 urte bete ditu *Asier Errasti* film laburren lehiaketak.

EIBARKO IRRATIZALEEN ELKARTEA

Helburuak

Irrati-komunikazioak sustatzea da elkarte honen eginkizuna, ikuspuntu tekniko eta giza ikuspuntutik denon zerbitzura egoteko helburuarekin. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean, eta orokorrean hartuta, larrialdietan irrati-loturak gauzatzea dago. Historia eginez, 1983ko abuztuan izandako uholde larrietan aurkitu dezakegu elkartearen sorburua. Telefono komunikazioak eta herrira sartzeko bideak moztuta zeudela, irrati-zaleek euren ekipoak ipini zituzten martxan eta informazioa zabaltzea lortu zuten. Lehenengo estazioa alkatearen bulegoan ezarri zuten, 144Mhz-ko bandan. Gero, 1984ko azaroko Sanandresetan I. Expo-Irratia egin zen Eibarren eta 1985eko ekainean Irratiaren I. 24 Orduak egin ziren Olabeiko zelaian. Eta 1988an sortu zuten elkarte.

Ekintza nagusiak

- Larrialdietarako irrati jarraipen ireki iraunkorra.
 - Kanpoan dauden hainbat eibartarren (misiolariak tartean) eta euren familien arteko irrati loturak egitea.
 - Irrati arloan edozein motako aholku eta laguntasuna eskaintzea.
- Bilerak hilero egiten dituzte.

Helbidea: Arrateko Udalekua (transmisioak)
Barakaldo kalea, 5 (bulegoa)

Telefonoa: 699 49 52 45
E-maila: arce_eie@yahoo.com
Webgunea: www.arce-eie.com
Kontaktua: Patxi Muñoz



Eibar eta inguruko herrietako 60 bazkide inguru daude elkartearen.

Lanbide Heziketa eta lan mundua

euskalduntzeko egiten diren lanak erakusteko eta esperientziak konpartitzeko bilgunea da **HIZKELAN**.

Elgoibarko IMHk aurreko hamarkadan antolatutako "30+10" mintegiari erreleboa hartu zion Laneki elkarteak iaz, eta HIZKELAN jardunaldia antolatu zuen lehenengoz IMHn. Laneki-ren asmoa Hizkelan mintegia urtero leku desberdin batean antolatzea da, eta aurten Armeria Eskolan egingo da, azaroaren 8an. Guztia antolatzeko Armeria eskolan urte askotan jardun duen Joxe Mari Ulaziaren laguntza izan du Laneki-ko Kepa Altubek.



Azaroaren 8an Armeria Eskolak hartuko du II. HIZKELAN jardunaldia. Argazkian, antolaketa lanetan ibili diren Kepa Altube eta Joxe Mari Ulazia.

KEPA ALTUBE eta JOXE MARI ULAZIA:

"Enpresa eta Lanbide Heziketa euskalduntzeko bilgunea da HIZKELAN"

– Zein helbururekin antolatzen da HIZKELAN?

Joxe Mari Ulazia: Lanbide Heziketako ikastetxe eta enpresa askok euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute eta beste asko hartzeko asmotan dabiltza. Jardunaldi honekin, lan horren inguruan, Lanbide Heziketan, elkarte eta enpresetan egiten ari diren lanak ezagutarazi nahi dira. Esperientzietan oinarrituko da jardunaldia. Izen ematea zabalik dago eta *jakinbai.eus* webgunean egin daiteke.

– Norentzat izan daiteke aproposa edo baliogarria?

Kepa Altube: Alde batetik Lanbide Hezikuntzan lan egiten duten profesionak etorriko dira. Horren harira, azpimarratu nahiko nuke euskara bultzatzeko edo sustatzeko gero eta interes handiagoa duten irakasleak daudela. Bestalde, euskaraz lan egin nahi duten edo lan egiten ari diren enpresentzako bilgune garrantzitsua da, esperientziak partekatu egingo direlako. Gainera, normalkuntzan, itzulpengintzan... lan egiten duten euskara eragile eta teknikariak daude; eta erakundeak ere garrantzitsuak dira... Denok batera ahalegin berberera bagoaz etekina handiagoa izango da, eta azken inkesta soziologikoez diotenez ezin gara erlaxatu.

– Iaz Elgoibarko IMHn egin zen Jardunaldia eta aurten Eibarrera ekartzea erabaki duzue.

K. Altube: Urteetan egin da IMHn "30+10" jardunaldia edo mintegia "hizkuntzaren kudeaketa enpresan" gaiari buruz. Iaz bukatu zen etapa hori eta Hizkelan 2016 antolatu zen IMHn. Aurten, Laneki-ko lan-taldekoek Armeria eskolako zuzendaritza, normalizazio-taldea eta Joxe Mari Ulaziarekin elkarlean antolatu dugu Eibarko hau. Armeriakoak guztiz murgildu dira proiektuan. Esan beharra dago atzean dauden pertsonen bultzatuta egiten dugula lan hau, eta horiek dira euskaraz lan egin nahi duten lanbide heziketako ikastetxeak, irakasleak eta enpresetako langileak.

– Laneki eta erakundeetako ordezkariak gain, LHko ikastetxeetako eta Elay eta Kabia bezalako enpresetako ordezkariak ere izango dira...

J.M. Ulazia: Industria enpresa baten ikuspegia (Antzuolako **Elay**) eta zerbitzua eskaintzen duen beste batena (**Kabia**) izango ditugu. **Armeria eskolako** eta Donostiako **Easo Politeknikoko** arduradunek euren esperientziak azalduko dituzte. Bestalde, **SD Eibar Fundazio**ko ordezkari bat ere izango da: euskararen plan estrategikoa daukate eta euren errealitate horretan zer egin nahi duten azalduko digute. Zinemagintza mundua ere ekarriko dugu, "Loreak" eta "Handia"ko Joxe Mari Goenaga izango dugu gurekin, eta bere lantaldean zinegintza

eta euskara nola ulertzen duten azalduko digu. Guztiekin mahai-ingurua egingo da eta, ondoren, jardunaldiaren laburpena egingo digu Mikel Laskurain aktoreak. Amaitzeko, erreferentzia markatu duen Elay enpresari eskertza azalduko diogu eta enpresa horretako sortzaileetako bati –Jose Luis Elkorori, hain zuzen ere– omenaldia egingo diogu arlo horretan eta beste hainbatetan egindako lan itzelagatik.

– Lanbide Heziketako irakasle eta zuzendari moduan ibilbide luzea egin ondoren, Laneki elkartearen gestioaz arduratzeko izendatu zintuen Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Sailburuordetzak. Zein da Lanekiren zeregina?

K. Altube: Laneki elkarteak Lanbide Heziketan ikas-materiala euskaratzeaz eta euskararen sustatzeaz arduratzen da. Webgune baten bidez lan egiten dugu (*jakinbai.eus*), eta helburu nagusia Lanbide Heziketako irakasleak eruskarazko edukiarekin hornitzea da. Egin dugun azken lana *Lanenpres* gida da (Hizkelanekin lotuta dago). Lantokiko Prestakuntza eta Dualeko enpresa-egonaldia euskaraz egiteko gida da. Gero eta sentsibilitate handiagoa dago enpresaren aldetik; bezeroei zerbitzua euskaraz ematearen garrantzia ikusten dute. Eta, bestalde, euskaraz ikasten duten ikasleek lan munduan ere euskaraz jardun nahi dute.

Mendaroko Ospitala martxan ipiñi zala mende larena ospatu eben aurreko astian, astelehenetik barixakura prestatutako hainbat ekitaldirekin. Eguenekua izan zan egunik garrantzitsuena, ekitaldi instituzionala jaso zebalako eta Coliseoan eskindutako mailla haundiko kontzertuagaittik. Askok aldatu dira gauzak azken 25 urtitan eta ospitalak eskintzen ditudan zerbitzuak gero eta mesedegarriagoak dira eskualdeko gaixuentzat.



Harrera zerbitzu barrira ipiñi zeben martxan Mendaron uda aurretik.

Mendaroko Ospitalak 25 urte bete ditu

Zortzi herriri eskintzen detsa zerbitzua Mendaroko Ospitalak (Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku, Ermua eta Mallabia) eta gaur egun Erakunde Sanitarixko Integratua daren gitxi gorabehera 78.000 biztanle artatzen ditu. 2011tik da aittatutako ESI Mendaro: horrek esan nahi dau osasun-arretako bi mailla edo esparru nagusixak bakarrian uztartzen dirala. Mendarokuan zortzi herrixetako lehen maillako arreta zentruak (zazpi osasun-zentro eta hiru kontsultategi) eta erietxia bera dake toki-xa eta, gure herrixan eraikitzen diharduen ospitala be hor sartuko da.

Mendaroko ESlaren egiturazko langille kopurua 676kua da, baiña ohiko bihargin kopurua 800 inguruan ibiltzen da, kopuru horretan medikuak, erizaiñak, erizain-laguntzaillak, emagiñak, zeladoriak, fisioterapeutak, administrazio-fokoko langillak, teknikari-

xak... tartian. Baliabidieri begiratu ezkerok, 119 ohe dagoz Mendaron, bost kirofano eta lau erditze gela. Erradiologixa atala eta TAC-ak egittekok, bestalde, eskanerra be badauka. Eta horrekin batera, kontsultetarako 39 lokal, larrialdi zerbitzua, etxian ospitaleratzeko zerbitzua, erreamiziorako unidadia eta, ebakuntza egin ondorengo kasuetarako, eguneko ospitala be bai.

Jarduera datueri erreparatuta, iaz 7.300 ospitalizaziño senda-agiri emon zittuezen, eta kirurgia haundi zein txikiko 7.000 operaziño inguru egin zittuen. Kirurgia txiki ambulatortxuan egunian bertan etxera juan ahal izan ziran 1.800 gaixo ingururi egin zetzen ebakuntza. Eibartar gehixenok gaur egun Mendaron jaixotzen gara, ezta? Ba iaz 641 ume jaixo ziran Mendaroko erietxian, zortzi herrixen artian banatzekuak, jakiña. Emagiñaren kontsultak 20.000 inguru izan ziran bitartian. Baiña kontsulta guztieri begiratzen

badetsagu, 340.000 jaso ziran ESlren lehen maillako arretan, euretako 136.000 inguru Mendaroko erietxian. Bestalde, pediatria ar-luan 62.000 kontsulta izan ziran. Eta larrialdixerri erreparatuta, osasun zentruetako larrialdixetan 54.000 lagun artatu zittuen, eta ospitaleko larrialdixetan 32.000.

Aitzindarixak hainbat arlotan

1982xan onartu zeban Osasun Ministerixuak "orduko Deba Beheko eskualderako" ospitala eraikitzia, Eibarkuok zentro sanitarixo gertukuena "Hospital Donostia genuenian". Handik urtebettera, 1983an hasi ziran eraikitzen, eztabaida batzuren ondoren. Eibarko orduko alkatia Yraolagoitia be ahalegindu zan ospitala Eibarrera ekartzen. Eta Jon Darpon Osasun kontseillarixak aurreko eguenian Mendaron gogoratu zeban moduan, "1990ian hasi zan zentrua atiak zabaltzen, ospitala guztiz ekipatzeko beste bi



Aurreko astian izandako ekitaldixen artian, Cadena Ser-ek programia egin zeban ospitaletik eta Coliseoan kontzertu arrakastatsua izan zeben eguenian.



urte bihar izan bazittuen be. Bigarren fase batian zerbitzuak ipiñiko ziran martxan”.

Imanol Apalategi izan zan lehen zuzendaria eta inauguraziño ofiziala 1983an egin zeban Iñaki Azkuna orduko Osasun kontseillarixak, Ardanza lehendakarixa Mendaron egon zan ekitaldixan. 1992ko apirillaren 1ian artatu eben lehelengo pazientia larrialdixetan eta lan-giro bikaiñian emon zeban ospitalak lehen urratsak, “hamen inguruan patologixa asko zegalako diagnostiko barik. Gauza asko eguazen egitteko”.


Lehelengo urte hartan, “Mendarok 875 alta euki zittuan, 7.827 urgentzia, 24.360 konsulta, 760 operaziño, 104 ume jaixo zan eta, bataz beste, gaixuak sei egun emoten zeban bertan. 1992ko irailian ipiñi zan tokoginekologia zerbitzua” eta Pageiko Maternidadiak lekukua pasau zetsan Mendarori, eibartarrok Mendaron jaixotzeko. Ospitala aitzindarixa izan da hainbat arlotan: “Mendarokua lehelengo ospitala izan zan anestesias epidurala erabiltzen, 1994an. Horrez gain, 1997xan Estaduko lehelengo zentrua bihurtu zan sukaldian ISO 9002 naziñoarteko kalidadezko ziurtagirixa lortzen”.

2001ian sasoi hartako 113 millioi pezeta erabili ziran eguneko ospitala sortu eta reanimaziño unidadia eta beste kirofano bat egitteko. Holan lau kirofano izango zittuan ospitalak. 354 bihargin zittuan orduan Mendarok. 2004an be aitzindari izan zan erretziaren kontra: “Eta zillarrezko akreditaziñua daka tabakuaren keiaren kontrako erakunde libre moduan”.

2008xan, bestalde, etxeko ospitalizaziñua zabaldu zeban “agudo, kroniko eta paliatibuentzat, euren etxietan tratamendua jasotzeko bidia erakutsiz”. Handik urtebetera, 2009xan, Ingreso Bako Zirujia Unidadia zabaldu eben, Eguneko Ospitala be deittutakua, “ospitalizaziño ordu gitxi bihar daben gaixuak hobeto artatzeko”. Eta 2010ian Urgentzia edo Larritasun Zerbitzu barrixa zabaldu eben.

2011ko abenduan urrats oso garrantzitsua emon zeben Mendaron, eskualdeko beste osasun zentruekin batera Debabarrenako Erakunde Sanitarixo Integratua osatu zebenian. Erakunde hori Osakidetza-ko lehelenguetakua izan zan lehen atenziñuak dittuan bost unidadiak barneratzen. Eta iaz be ez zan atzian geratu, sarixeri dagokixonez batez be. Hónek laurak eskuratu zittuan: zillarrezko A Kudeaketa Aurreratuan, Zillarrezko Bikain Sarixa, Lan-Arrisken ziurtagirixa Aenorrekian eta Ingurugiro Gestiónaren ISSO 14.001. Oin bertan Ingurugiro Kudeaketaren EMAS Europako

Astelehenean hasi zan gripiaren kontrako txertaketa-kanpaiña



Astelehenean hasi zan gripiaren kontrako 2017ko txertaketa-kanpaiña eta abenduaren 23ra arte iraungo dau. Gripetik babesteko txertaketa-kanpaiña honako arrisku talderi dago zuzenduta batez be: 65 urte baiño gehixago dakenak; gaixotasun kronikuak dakenak (diabetesa, biriketako gaixotasun kronikuak, kardiopatiak...); haurdu dagozen emakumiak; eta, jakiña, profesional sanitarixuak. Aittatutako talderen batian egon ezker, osasun-txartelarekin ohiko osasun-zentrorra jua eta txertua ipiñiko detse, baiña, halanda be, aurretik telefonoz deitu eta hitzordua eskatzia komeni da. Aurtengo kanpainarako 400.000 txerto erosi dittue. Bestalde, Osasun Saisetiko gripi saihesteko lagungarrixak diran hainbat neurri gogorarazi nahi detse be herriareri: erabili eta gero botatzen diran paperezko zapixak erabiltzia; eztula edo doministiku egittian, ahoa edo sudurra besuarekin estaltzia; eta eskuak urarekin eta jabiarekin sarritan garbitzia.



errekonozimenduaren billa dabilta. Mendaroko plantillia 468 lagunekua da gaur egun eta osasun-zentruetan beste 200 bat lagun dihardue biharrian.

Zahartze prozesuari aurre egifaz

Mendaroko Ospitalak eskintzen daben hurbiltasuna da “gehixen” baloratzen dabena udatik hona bertako zuzendarixa dan Marbella Garciak: “Gure tamaiñak asko laguntzen dau horretan. Herritar batek jaixotzen danetik hiltzen dan arte bihar dittuan zaintza guztien %90 inguru eskintzen dittugu Mendaroko erakunde sanitarixo integratuan”. Egixa esan, ebakuntza zihetz eta konpleju batzuk kenduta danetarik egitten da Mendaron. Eta dittuan hutsuneri begira, “Eibarren egingo danak epe erdiko eta luzeko ospitalizaziñuari erantzungo detsa. Oin ospitaleratze luzeko gaixuak batez be Donostiara bialtzen dittugulako”. Dana dala,

Mendarokuari ezer kendu gabe, “Eibarkua osagarri izango da”. Baeguazen eritxixak Mendaroko erietxia handitzia eta egokitzia eskatzen zebenak; baiña, emoten dabenez, Eibarkuak beteko dau hori zerbitzuori. Eta, etorkizunari begira, biztanleriaren zahartze prozesuari erantzutia izango zan ardatz nagusixa: “Kronizidade estrategixa osua dakagu zahartze prozesu horri erantzuteko”. Askok aldatu dira gauzak 1992 urte hartatik, “odol analisi bat egitteko astebeteko itxarona zerrendia egoten zan denporatik”.

Eibarko Ospitala hamendik urtebetera

Fetxa hori ipiñi eban Darpon kontseillarixak Eibarren egitten diharduen “sub-aguduentzako ospitala” amaitzeko, hau da, 2018ko bigarren seihillabeterako. Mendarokuaren osagarritzat jo zeban eta “72 ohe izango dittuala” gehitu. Egonaldi erdi eta luzeko gaixo kronikuak hartuko dittu batez be: “Debabarrenakuekin batera, Debagoieneko eta Lea-Artibaikuak baita”. Bere hitzetan, “zaintza paliatibuen unidadia izango dau, aguduen eta lehen arretaren zerbitzuak osatzeko”. Torrekuako osasun-zentruko eta Buru Osasun Zentroko zerbitzuak bertan hartuko dabe tokixa. Horrez gain, “erhabilitaziñua, traumatologia, arnas aparatua eta reumatologia espezialidadietako Eibarko eta Ermuko gaixuak bertan artatuko dittue, Mendarora jua barik”.



Eibarko Udal Artxiboko “sekretuen” badagoz hainbat gertakizun bitxi edo xelebreak. Hona hamen arlo horretako bi, gure herrixaren beste sasoi batzuk gogoratzen deskuenak.

Arrateko jai iskanbillatsuak

Alaitasuna nagusi izan bada Arrateko Amaren ohorez ospatutako ixa jai guztietan, 1620kuetan liskarrak eta iskanbillak nagusitu ziran. Amabirjiñaren bezperak ospatzen ziran egunian, eskualde osotik etorritako agintari eta herritarrak batu ziran Arrateko baselizan, eta mezaren erdixan, kanpotik zetorren iskanbilla entzun zan. Berehala urten eben Pedro de Olea alkatiak eta Cristobal de Sugadi errege eskribanauak. Zer gertau zan ba? Eibarko eta Elgoibarko kuadrillen arteko drogia. Gauzak pixka bat baretzen asmatu zebenian, momentuan iskanbillatsuen bi hartu eta atxilotu egin zittuezela. Hor pakia, egun baterako behintzat.

Hurrengo domekan, Kofradia Egundian, jokuak eta dantzak eguzen Arrateko kanpan. Kartetan jokatzeko ziharduen Elgoibarko talde batek, Comino deitzen zetsen mutil baten agindueri jarrai-



ttuz, jokotik altxa eta taldian “lekaiorena deitzen zan dantza ezaguna” hasi zan dantzatzen. Ez zeban luze iraun dantza horrek, Elgoibarkuak -30 lagun inguru- euren ezpatak hartu eta, “amorruez betirik, Eibarkuak zirala uste zeben guztieri erasotzen hasi ziralako, ‘hil, hil’ esanaz”.

Bakia ipintzen ahalegindu ziran Joan de Açaldegui eta Andres de Arizmendi basarritarrak jipoitu zittuezen, buruan eta gorputz guztian. Kanpan zeguan jende guztia baselizara juan zan antxixiketean, babes billa, eta atzetik erasotzailliak, atiak zabalteko kolpeka, gero eta indartsuago. Kanpaiak jotzen hasi ziranian lortu zeben barruan zeguzenak Elgoibarkuak uxatzia.

Joan de Olaso Elorrioko bizilaguna guztien lekuko izan zan eta, berak kontaktatuaren arabera, erasotzailliak ez ziran oso pozik geratu, itzultzerakuan Mallabiko bizilagun bati “labankadia emon zetselako kotian eta odolez bete, bakia ipintzen hasi zalako bakarrik; Eibarkuen kontrako amorrua hainbestekua zan, bakia egitten hasi ziran guztiak areriotzat hartzen zittuela”. Elo-



rrioxuaren ustetan, Joan de Cutuneguieta Eibarko basarritarraren kontra zeguzen batez be Elgoibarkuak, aurretik berarekin izandako beste arazo batzuk tarteko. Egundian horretan kanpan zeguan eta gehitu egin jakuen elgoibartarreri eurak hasittako dantzaz; ez dakiguna da ondo koordinatu zittuan egin biharreko mugimenduak, baiña bai ihesian urten zebala. Liskar horren guztien erdixan zeguan Joan Martin de Muscotegui Çavala elgoibartarraren esklabo beltza eta bera izan zan “zalaparta gehixen piztu zebanak eta Eibarkueri kalte gehixen egitteko animatzen zebillena”.

Arrateko ospakizunak iñoiz baiño saltsa gehixago euki zeban 1620. urte hartan. Hurrengo urtian batek baiño gehixagok birritan pentsatuko zeban jaixetara juan edo ez.

Urkizuko errotarixaren kasua

CSI-ren kasua balitz lez, 1626ko ekaiñaren 27xan, goizeko 06:00etan, Pedro de Loiola alkatiaren etxeko atia jo zeben, aitzen emoteko andra baten gorpua aurkittu zebela eta, lehen susmuen arabera, Catalina de Bizcalaza Urkizuko errotarixa izan zeikiela esanez. Lehelengo lekukuak, Diego de Eguletak, esan zebanez, “goizeko 5ak aldian, Elgoibarrera doian errege galtzadatik beste zazpi lagunekin etxerutz zoiazela, Urkizuko erroteren onduan (gaur egungo Urkizuko eskolak), lotan egon zeinkian sardiñera bat -bernak bistan zittualako- ikusi zeben errekarren beste aldian. Euretako gaztienak, Domingo de Zuloagak, erreka gurutzatu eta Pedro de Zubiaurreren emazia zala ikusi eban, hilda bere ustetan. Bestieri abisau eta danak juan ziren berarengana. Catalina zala konturau eta, oindiok arnasia baekala konturatuta, ahalegindu ziran lehen sorospentetan. Baiña azkenian, hainbeste zirirekin, hil egin jakuen!”.

Alkatia hara heldu zanerako sei t'erdixak baziran eta hainbeste jende zeguan Urkizun ferixa eguna emoten zebala. Ikerketan ez da agertzen esparrua inguratu zan edo ez, baiña mediku-zirujauari deittuta, baten faltan bi etorri ziran eta bixak, Nicolas de Celaak eta Pedro de Murguiak, eraba-

Pedro de Loiola

gi eben han ez zeguala iñolako kolperik eta dana “Jaungoikuaren borrodatia izan zala”. Ordu erdi horretan makinarixa guztia abiatu zan, “judiziala, poliziala eta forensia”. Unbeko harrobixan San Andres parrokiararako harrixa etaraten biharrian zeguan Pedro de Zubiaurre alargunari deittu zetsen eta, heldu bezain laster, alkate-epailliak galdera mordua egin zetsesan. Ikustian bere erantzunetan ez eguala kontraesanik, auzotarren artian itxurako gorrotorik izan zeikien itaundu zetsan. Pedrok halakorik ez zebala igarri esan zetsan, baiña andria makal antzian zebillala azken aldian, zorabio bat edo beste be izan zittuala-eta.

Bi ordu baiño gitxiago bihar izan zeben epailliak eta eskribauak kasua ixteko. Hori bai, hildakuen senarrari esan zetsen gitxienez 24 ordu itxarroteko Catalinaren gorpuari lur emoteko, “bestela bere kontrako neurriak hartuko zittuezela” mehatxatuz. 1626 hartan Catalinaren kasua ez zen bakarria izan Eibarren, pestearen eragiñaz asko hil ziralako Euskal Herriko herri askotan. Gregorio Mujikaren “Monografia Histórican”, esaterako, aittatzen danez, 1626tik 1636ra (hamar urtetan) Eibarrek 358 bizilagun izatetik 313 izatera pasatu zan. Urte horretan asko jaixo ziran, baiña hil errazago hiltzen zan jendia.

EZTEIEN

38. zenbakia 2017ko UDAZKENA



Argazkia: Josu Torrealday

GEHIGARRIA

M A R S I



bidebarrieta, 1
943201626
639403457



San Juan, 1
943 20 33 29

Izadi



ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA



josutorrealday estudio
argazkilaritzafotografia

www.taomweddings.eus | www.josutorrealday.com

c/ Fermín Calbetón nº4, 1º A3 20600 EIBAR (GIPUZKOA)
6 7 9 9 5 0 8 5 8 j o s u @ t a o m . e u s



*Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak*

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

fasprint
inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
Gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

Serigrafia

Tel./Fax: 943 20 16 13 - Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR
fasprintei@yahoo.es - www.fasprinteibar.com



Argazkia: Josu Torrealday

BAI SARE SOZIALEI!!!

Denok dakizue gaur egun sare sozialek demaseko garrantzia daukatela. Badaude euren intimitatea oso ondo gordetzearen aldekoak direnak, baina horrek larregi arduratzen ez bazaitue sare sozialak erreminta ezinhobea izan daitezke zuen ezkontza egunean. Hori bai, beti ere ondo kontrolatutako zabalpena eginez. Sarearen bitartez ezkongaien eta gonbidatuen arteko loturari utsiz eta *hashtags*-ak edo traolak erabiliz, guztiok oso momentu dibertigarriak bizi ditzakezue. Gainera, ezkontzako argazkien detaileak ez galtzeko aukera ematen du: emaztegaiak lora-sorta botatzen duen unea, lehen dantza erromantikoa... inoiz errepikatuko ez diren uneak izango dira.

Ezkontzako traola

Hasteko, ezkontzako traola sortu dezakezue, komentarioak eta zuen gonbidatuek euren sare sozialetara igotako argazkiak ondo gordetzeko.

Gonbidatu guztiak etiketa bera erabiltzen badute ezkontzaren difusio kontrolatua izango duzue (sarera uneoro igo den guztia ikusi ahal izango duzue). Ondo ordezkatzeko zaituen traola bat pentsatu beharko duzue (zuen izenak eta ezkontzaren dataekin). Etiketa zenbat eta originalagoa izan, aukera gutxiago egongo da zeuen gauzak beste ezkongaien argazki eta komentarioekin nahasteko.

Gonbidatuek zein etiketa kontuan hartu eta erabili dezaten aurretik prestatu behar diren gonbidapenetan jar dezakezue, eta baita minutan ere. Kartelak ere jar ditzakezue jatetxean.

Gonbidatuekin egindako argazkia igo

Gonbidatuek eta ezkongaiak elkarri eragiteko beste modu bat, ezkondu bezain pronto (aliantzak jarri eta muxua eman bezain pronto, hain zuzen), gonbidatuak atzean daudela, argazki bat atera eta sare sozialetara igotzea da. Aldi berean, zuen sare sozialetan agertzen den egoera zibila aldatu dezakezue. Originala, ezta?



Joseba

 JATETXEA



Ametsik politenak egi bihurtzen diren txokoa

josebajatetxea@hotmail.com
[facebook/josebajatetxea](https://www.facebook.com/josebajatetxea)
 943 85 34 12
 AZKOITIA



CASTAÑO
PELUQUEROS

943 207047
Fermin Calbeton, 1

peluqueriacastano@gmail.com
www.castanopeluqueros.es

Errebal, 22
943 20 20 79

RELOJERIA 75 urte
SALABERRIA

J. Salaberria Bitxitegia

%30eko DESKONTUAK
Festina eta Viceroy-n

El Corte Ingles-ean

El jardín de tulipa
FLOWERS&DECO

943 20 88 47
645 67 85 76

“TIRO PITXOI JATETXEA”

– Eguneko menua
– Asteburuko menua
– Menu bereziak
– Karta...

Arraten

– Ezkontzak
– Ospakizunak...

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

Loiola, 24
-AZPEITIA-
943-815608
www.kiruri.com
info@kiruri.com

Kiruri

– Ezkontzak
– Bataioak
– Jaunartzeak
– Eguneko menua
– Taldeko menuak
– Karta...



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkontzeko asmoa daukazu enok prestakuntza lanetan buru-belarri sartuta egongo zarete ziurrenik. Etxekoak eta gonbidatuak aho zabalik utziko dituzten detaileak pentsatzen egongo zarete, entzun ahal izango diren abestiak aukeratzen, amestutako soinekoa bilatzen... Baina akordatzen zarete, esate baterako, ezkontzeagatik dagokizuen **OPOR-BAIMENAZ?** Zenbat egun izan ditzakezue? noiz hasten dira kontatzen? udako oporrekin koinziditzen badute galdu egin daitezke? ordaindutako oporrak dira? Ohiko zalantzak argitu nahiean, hemen dituzuen kontuan hartu beharreko oinarriko hainbat puntu batzuk.

Zer da ezkontza-baimena?

Ezkontzeagatik ematen den baimena langile guztiei aitortzen zaien eskubidea da. Juridikoki, bere bikotekidearekin legalki elkartzeko langileari dagokion ordaindutako lan-baimena da. Ezkontzak zibilak nahiz erlijiosoak izan daitezke.

Zenbat egun libre dagozkigu?

Langileen estatutuaren arabera, langilea ezkontzen bada 15 egun natural dagozkio. Egunduzkiak kontatzen dira, ezkontza eguneko barne. Bestalde, zuen enpresetako hitzarmen kolektiboa ere hartu behar duzue kontuan: hitzarmen batzuk egun gehiago aitortzen dituzte-eta.

Noiz hasten da ezkontza-baimena?

Ezkontza-baimena lehenengo lanegunetik hasi behar da kontatzen. Hau da, zapatu batean ezkontzen bazarete, eta zuen egun libreak zapatu eta domekak baldin badira, astelehenetik aurrera hasi beharko zarete 15 egunak kontatzen.

Kontratu guztiek jai egun kopuru berbera izaten dute?

Bai, berdin da zein kontratu mota izan (kontratu mugagabea, lanaldi partziala, lanaldi-murritzapena...). Denok daukazu 15 egunetako baimena izateko eskubidea.

Eta autonomoak baldin bagara?

Autonomoa bazara nahi dituzun egunak hartu ahal izango dituzu, baina inolako ordainsaririk gabe. Baina autonomoa izanda ere, gutxienez zure sarreraren %75 bezero bakar batengandik jasotzen baduzu, ordainsaririk gabeko 18 opor-egun har ditzakezu urtean. 10 egun hartzen badituzu, 8 jai-egun geratuko zaizkizu urtean zehar disfrutatzeko.

Noiz eta nola jakinarazi behar diot enpresari?

Langileen estatutuak esaten duen bakarra da enpresari aurretik komunikatu behar zaiola. Normalean ezkontzak denborarekin antolatzen direnez, zenbat eta lehenago abisatu, hobeto. Legeak ez du zehazten nola egin behar den. Enpresan daukazun postuaren arabera idatziz edo ahoz esan daiteke. Eta bueltatzerakoan familia-liburua edo ezkontza-agiria aurkeztu!

Aldatu daiteke opor-baimenaren data?

Ohikoena opor-baimena ezkontzaren ondorengo egunetan izatea da. Baina, enpresak horrela baimentzen baldin badu, opor egun horiek atzeratu egin daitezke, bikoteari ondo etortzen zaionean hartzeko.

Egun horiek oporrekin elkartu daitezke?

Posible da 15 egun horiek legalki urtero dagozkizun oporrekin elkartzea, ezkontza juxtu zure urteroko atsedenaldia baino lehen baldin bada. Horrela ez bada, enpresa ados badago eta onartzen baldin badu, kasu horretan ere arazorik gabe elkartu daitezke. Saiatu zaitez ezkontza-baimena urteroko oporrekin ez koinziditu arazten, bestela egunak gal ditzakezu.



Argazkia: Josu Torrealday

Izatezko bikotea baldin bagara, zer?

Egitatezko edo izatezko bikoteen legea onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2003. urtean. Orduetik, eskubide berdin-berdinak dituzte ezkonduetako edo bikote gisa inskribatutako guztiek.

Belaustegi Baserria

JATETXEA
www.belaustegi.com

Zure ezkontza zure neurrira!

San Migel gaina z/g 943 743 102 ELGOIBAR



**Ezkontza
eta egun
berezetan
ZUREKIN!!**



Bidebarrieta, 28

Tel. 943 20 79 73

**Ezkontzetarako
tartak eta opariak
prestatzen ditugu**



Argazkia: Josu Torrealday

Izan zaitezte sortzaileak

Gonbidapena

Izan zaitezte sortzaileak. Esate baterako zinema-sarreraren itxurako ezkontza-gonbidapenak egin ditzakezue; paper gardenezko gutunazal batzuk prestatu eta inprimatutako gonbidapenak sartu barruan. Txantiloak edo plantillak erabilgarriak dira ezkontzako traola idazteko gutunazalean (*#agurtzanexabat*, adibidez). Horrela, gonbidatuek, ezkontzara datozenek nahiz ez datozenek, sare sozialetan jarrai dezakete ezkontza.

Bauskain FINCA

IRVIA GRUPO grupoiruna.net

"Esklusibotasuna, pribatutasuna eta gastronomia bikaina eskaintzen dizu **Finca Bauskainek** antolatzen zabilzan bataio, jaunartze edo ezkontza ospatzeko. Etorri eta ezagutu"

Markina Xemein
Telf. 94 424 9059
bauskain@grupoiruna.net
www.fincabauskain.com

Gonbidapenentzako beste ideia bat tribial-joko antzeko bat egitea da. Gonbidapenaren alde batean galderak bota daitezke (*noiz ezkonduko gara?, zein jatetxetan? autobusa egongo da?*), eta beste aldean erantzunak jar daitezke.

Photocall-a

Argazkilaritza, sare sozialak eta posatzea atsegin baduzue *Photocall-a* egin dezakezue. Fondo moduan, ospatzen ari zareten egun berezia isladatzen duen irudi original bat jar daiteke.

Opariak

Gonbidatuentzako oparietan aukera zabala dago, eta hor ere zeuen irudimena martxan jar dezakezue. Pashminak, txankletak, kanpo-bateria, takoi babesgarriak, mezu positiboak dituzten itxulapikoak...

Flashmoba

Hau konplikatu xamarra izan daiteke, baina, zalantza barik, gonbidatu guztiak zur eta lur geratuko dira. Hori bai, prestatzeko denboratxo bat behar da.



Argazkia: Josu Torrealdai

Botatzeko argazki-kamerak

Aurreko proposamenaren ildotik jarraituz, erabili eta botatzeko argazki-kamerak jar ditzakezue mahaietan. Horrela, gonbidatuek aterako dituzte argazkiak. Ondoren, argazki-kamera horiek eskatuko dizkiezue eta ikusiko duzue errebelatzerakoan nolako emaitzak eman dituen ideia honek! Animatu zaitezte!!!

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

IA BETIRAKO MANIKURA ETA PEDIKURA

MAKILLAJEAK

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

DEPILAZIO PROMOZIOAK

IZTERRONDOA + BESAPEAK = 50€
ZONA BAKOITZA 30€

Masajeak

www.kantabriaajatetxea.com
kantabria@kantabriaajatetxea.com

EZKONTZAK BATAIOAK JAUNARTZEAK

Arrate Gaina, 4 • 279 Postakutxa • 20600 EIBAR • Tel. 943 121 262

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JATETXEA



PERIKO IRIONDO: Iturriaga baserria iraileko goiz batean, behe lainoarekin jokoan.



Aste honetan ekin zaio Ikastenek antolatzen duen Esperientzia Eskolaren 2017/18 ikasturteari. Urtero hazten doa egitasmo honetako ikasleen kopurua eta, aurten, hamalaugarren promozioarekin, hamabost lagun berri batuko dira esperientzia aberasgarri hau bizi izan dutenen familiara. Eskualdeko hainbat herritatik etorritako jendea bilduko da bertan, baina Eibarkoak izango dira. Ikasturtea hasi da, baina izena emateko aukera dago oraindik. Bertan aritu direnek aho batez gomendatzen dute esperientzia.

BETI IKASTEN da zerbait

Elkar ezagutzeko aukera izan zuten Esperientzia Eskolako hamalaugarren promozioiko ikasleek joan den barixakuan. Armeria Eskolak 2017/18 ikasturtearen harrera-ekitaldia jaso zuen, Felipe Zubiate Ikasteneko ordezkariak aurkeztuta, eta Ani Alberdi Ikasteneko presidentearneta Miguel De los Toyos alkatearen parte-hartzearekin. *“Uste duzuen baina gehiago eskainiko dizue ikasturteak”,* aipatu zien Alberdik ikasle berriei eta alkateak, bestetik, Esperientzia Eskolaren jarduerak herria aberasten dutela adierazi zien. *“Eta lasai egon, nik dakidala inork ez du suspenditu”.* Gero, liburuak zozketatu ziren, urtero bezala, eta ekitaldiari amaiera emateko, Esperientzia Eskolan egiten diren jardueren erakusle, ‘La Novena’ Ikasteneko antzerki-taldeak ikuskizuna eskaini zuen.

Ohiko gela txikitik gela handiago batera pasa zuten aurkezpen-ekitaldia, bestea txiki geratzen zen-eta. Izan ere, urteak aurrera joan ahala, Esperientzia Eskolaren familia hazten doa eta denok nahi izaten dute ekintzetan parte hartu. Hori argi ikusi

zen barixakuko ekitaldian, jendetza bildu zelako. *“Lagun berriekin eta gauzak egiteko gogoarekin irtengo zarete”,* esan zien alkateak hasiberriei, eta aurreko edizioetako parte-hartzaileak dira horren erakusle garbiak. Joan den ikasturte amaierako ekitaldian elkarren arteko hitz politikak besterik ez ziren entzun, eta garatu zituzten proiektuen berri eman zuten han ere; Eibar eta Soraluzen luzaketak egiteko egitasmoa, kasu.

Klase parte-hartzaileak eta irteerak

Maiatzaren 24an amaituko dira klaseak eta astean hiru egunetan elkartuko dira ikasleak (martitzen eta eguaztenetan 9:30etik 12:30era Untzagako Jubilatuen Elkartean, eta eguenetan 10:00etatik 12:00etara Armeria Eskolan). Eva Pérez de Albéniz Esperientzia Eskolako koordinatzaileak azaldu digunez, *“gai ezberdinak lantzen ditugu ikasturtean zehar, eta gai bakoitza hiru goizetan landuko dugu gehien jota”.* Klaseak parte-hartzaileak izango dira eta ez da azterketarik egingo.

Gaian aditua den norbaitek eskainiko ditu klaseak eta ikuspegi praktiko batetik lantzea da asmoa. *“Filosofiar buruz ari bagara, adibidez, gai horrek gure bizitzan duen eragina edo eskaintzen dizkigun aukerak jorratzen ditugu”,* koordinatzailearen berbetan.

Esperientzia Eskolako parte-hartzaileek, ikasteaz gain, euren proposamenak lantzeko aukera ere izango dute. *“Programazioa hiru hilabetero egiten dugu eta ikasleei ere euren interesekoak diren gaiak proposatzeko aukera ematen diegu”.* Gainera, ikasleen parte-hartzea lantzen dute. *“Proiektu sozial bat asmatzen, diseinatzen eta martxan jartzen laguntzen diegu kurtsu amaierarako”.*

Hiru hilabetetik behin, landutako gaiekin zerikusia duen irteera bat egingo dute eta, horrez gain, Ikastenek antolatzen dituen ekintza guztietan parte hartzeko aukera izango dute Esperientzia Eskolakoek; Kaleetan Kantuzen, mendian ibiltzen, tertulia kafean, joskintza eta puntuan, ‘La Novena’ antzerki-taldean eta beste hainbat ekimenetan.

www.kolorlan.com

667 54 89 16



URRIA
AZAROA
ABENDUA

4 aulki
100€
tik aurrera

artezi Migel de Aginaga 9. Eibar. 943700994

Lantzen eta aukeratu zure oihala!

Errugbiko lehen taldeak garaile

Ohorezko B mailan jokatzen duen Avia Eibar Rugby Taldeak 15-10 irabazi zion aurreko zapatuan El Salvador B taldeari eta lau puntuak etxean geratu ziren. Hiru talde dituzte orain eibartarrek atzetik mailari eusteko borrokan: Oviedo, aipatutako El Salvador B eta Uribealde. Atsedendaldira 12-0 irabazten joan ziren Avia Eibarkoak, bi entsegu eta transformazio bati es-

ker. Hurrengo egunean, domekan, nesken senior taldea ere garaile izan zen Unben, Hernaniri 35-12 irabazita; ikusten denez, denboraldiari gogor ekin diote oraingoan. Senior mailako gizonezkoen B taldeak, bestalde, galdu egin zuen Plentziako Ardanza zelaian 35-12. Eta 18 urtetik azpikoek ere amore eman behar izan zuten Ordiziaren aurrean.



Haka maorien dantza egiteko beharrik ez dute emakumezkoen taldekideek jokoan gozatzeko dutela adierazteko.

Judo torneo bi lpurua kiroldegian bihar

Goizean San Andres Torneoaren 41. edizioa jokatuko da, 09:30ean hasi eta 14:30ean amaitzeko. Eta, infantil mailako aperitibo horren ondoren, arratsaldeko saioan Eibar Hiriko Emakumezkoen Nazioarteko XXII. judo torneo izango da jokoan, 15:30etik 20:00ak arte. Egun ezin aproposagoa, beraz, ekialdetik gurera etorritako kirol horretako maila handiko judoken era-

kustaldia ikusteko. Aurreko domekan, bestalde, Ne Waza modalitateko Espainiako Kopa jokatuko zen Madrilgo Villaviciosa de Odonen. Lau dominekin itzuli ziren Kalamuako ordezkariak: Arrate Jorgek urrezkoa eskuratu zuen, Mikel Marinek eta Unai Abasolok zilarrezkoa eta Iker Martinezek brontzezkoa. Azken honek, gainera, Espainiako selekzioarekin hartuko du parte Errumanian jokatuko den junior mailako Europako txapelketan.



Aitor Hernandez nagusi Beasaingo ziklo-krosean

Specialized-Ermua Impulso taldeko txirrindulari ermuarrak ia minutu eta erdi atera zien berarekin podiumean izan ziren Jon Munitxa eta Xabi Muriasi. Bigarren itzulian jo zuen aurrera Hernandezek eta inoiz ez zuen lasterketaren burua galdu. Zirkuituak bi kilometro eta erdi zituen, euretako 870 metro asfalto gainean. Ziklo-kros euskal egutegiko bigarren proba horren ondoren, Laudion izango du maila handiagoko denboraldiko lehen nazioartekoa.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 12. etapa egingo dute azaroaren 4an

Azaroko lehen etapa hori Ordunte presatik Balmasedara joango da, Burgüeno eta Koitza igota

Zapatu horretako etapa toki errazetik joango da ibilbide guztian eta, horrez gain, nahiko motza da, bakarrik 16,3 kilometro ditu-eta. Hala ere, oso toki esanguratsuetatik pasatuko da. Bestalde, Burgüeno (1.043 m) da etapako mendi altuena, baina benetan Koltiza (883 m) da benetan gailentzen den tontorra da. Koltizaren puntan San Sebastian eta San Roqueren ermita daukagu, XIII. mendekoa baina berreraikitakoa, gerra zibileko batailen ondorioz zeharo txikituta gelditu zelako. Mendi haori Bizkaiko "Montes bocineros" deitutako bat da, Oiz, Sollube, Gorbeia eta Ganekogortarekin batera. Ohikoa denez, azaroaren 4ko irteera hori ere goizeko 07:00etan egingo da, autobusen geltokitik.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguinetan (19:30-20:30).

TABERNA ITXITA EGON ARREN, BULEGOAK ZABALIK EGONGO DIRA

Koltizako tontorrean.



V. Asier Cuevas herri-lasterketak beteko ditu bihar herriko kaleak

Zazpi kilometro eta erdi besterik ez dira, herri barruan egin beharrekoak. Eta giro paregabea, gainera. Aurreko urteetakoaren bidetik, antolatzaileek ez dute ibilbidea aldatu: "lazko zirkuitoari eutsi diogu. Bi itzuli txiki egingo ditugu, San Agustin zeharbidean buelta hartuta, eta handi bat, Eibar Sofas gurutzebideraino". Bihar arratsaldeko 18:00etan hasiko den probarako izena eman daiteke oraindik, gaur gauera arte (00:00etan itxiko da epea) 10 euro ordainduta. Absoluto, junior eta beterano mailetatik aparte, aukera izango da taldeka parte hartzeko ere: "Lau korrikalariz osatuta egon beharko dira taldeak, bi neska eta bi mutil, eta laukotearen lehen eta azkenaren artean ezin da 30 segundo baino gehiago tarterik egon".

Berritasun gisa, "kirol egokituarekin lanean hasi gara aurten eta kirol egokituko atletak integratuko ditugu antolatzen ditugun



ekintzetan, bai Multikirolean eta baita lasterketan ere". Aurreko urteetan 300 parte-hartzaile izatera ailegatu da lasterketa eta kopuru horretara iristea da Eibarko Klub Deportiboko atletismo batordearen asmoetako bat. Bestalde, emakumezkoen parte-hartzea %20 inguruan dabil.

Levante izango du aurkari Eibarrek etzi

18:30ean hasiko den partiduan Eibarrek bere ligako aurkari zuzenaren bisita jasoko du Ipuruan. Une honetan valentziarrek lau puntu gehiago dituzte eta garrantzi handia izango dute jokoan izango diren hiru puntuek, batez ere eibartarrentzat. Herenegun etxean jokaturako Kopako partiduan, bestalde, txarteldegian jasotako dirua bakarrik ez, garaipena ere Galiziako lurretara joan zen, Celtak bigarrenez denbora gutxian nagusitu baitzen Ipuruan. Mendilibarren taldeari asko ari zaio kostatzen denboraldi honetan bai golak sartzea, eta baita horretarako jokia sortzea ere.



Morales Eibarko jokalaria-ohia da Levanteren arriskutsuenetakoa.

Ipuruak hartuko du euskal selekzioaren partidua

Emakumezkoen euskal foball selekzioak bere ibilbideko hamargarren partidua jokatu du, azaroaren 25ean, Txekiar Errepublikaren aurka. Neurketa Ipuruak hartuko du eta Iñigo Juaristi hautatzaile berriaren debuta izango da. Lazko azaroaren 26an jokatu zuen azkeneko euskal selekzioak, Dublinen, eta 2-1 galdu zuen.



Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus



Asteburu kaskarra izan zuten Eibar Eskubaloiko talde gehienek

2. Maila Nazionalen jokatzeko duen Somos Eibar talde nagusiak denboraldiko hirugarren porrota jaso zuen jarraian, bere atzetik dagoen Romoren kantxan 30-22 galdu ondoren. Liga hiru garaipenekin hasi eta gero, porroten bidea hartu dute Fernandezek mutilek. Emakumezkoen Euskal Ligako taldeak 22-21 galdu zuen Munttarperen kantxan eta Lurraldeko 1. mailan jokatzeko duen Haritzak 28-29 amore eman zuen Ipuruan, Ormaiztegiaren aurrean. Ikusten denez, zortea ere ez zuten alde izan Eibarko taldeek.



Iñaki Alzibar



Katu-Kalek garaipen erraza lortu du estreinaldian


Aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokatuako partiduan, eibartarrek 77-46 irabazi zioten Debako Electricidad Perosanz taldeari. Lehen laudernetik ihes egin zuten Iñaki Sanchezek mutilek (26-8) eta atsedenaldira 37-25 irabazten erretiratu ziren. Bigarren zatian serioa-go jokatu zuten Katu-Kalekoek eta, azkenean, 31 puntuko aldea atera zuten. Taldeak irudi ona esakini zuen eta Unai eta Ibon jokalariek berriek ekarpena oso baliagarria izan zen. Domekan, ligako bigarren jardunaldian, Tolosako Usabal kiroldegian jokatu dute eibartarrek, 12:00etan, bertako Take Coach-en aurka.

Ipuruako kadeteak eta infantilak San Andres Torneoan podiumean

Aurreko zapatuan, Ipurua Gimnasia Erritmikoak antolatutako XIX. San Andres Torneoaren barruan, herriko bi taldek lortu zuten podiumean irabazteko. Kadete oinarri mailako boskotea gorenera igo zen, bost zintekin egindako ariketari esker. Ana Portu, Izaro Altuna, Ainhoa Bizkarra, Arrate Baskaran eta Sara Aranguren osatutako taldeak aurrea hartu zuten Antsoingo nafarrei

eta Donostiako Izar Lekukoei. Infantil aboslutoen mailako boskoteak, bestalde, zilarra eskuratu zuen, Beti Aurrera Gasteizko taldearen atzetik. Eta senior mailako Ipurua seigarren postuan amaitu zuen. Kiroldegiko erdiko pistak Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko ordezkari zabala hartu zuen: 15 klub izan ziren parte hartzen, 200etik gora gimnasten parte-hartzearekin.

Aitor Alfonso kulturistak irabazten jarraitzen du



Oraingoan fisiokulturismoko euskal-nafar-kantabiar txapelantza jantzi zuen, bai bere neurrikoen mailan eta baita mens physique modalitateko absolutoan ere. Aurrekoa gutxi balitz, Espainiako txapelketan ere hartu zuen parte eta hor podiumeatik ezin gertuago geratu zen, laugarren postuan.

Eibarko bolatokian etxekoak nagusitu ziren

Jagoba Gonzalo nagusitu zuen aurreko zapatuan Asola Berrin jokatuako Euskadiko XXVIII. hiru-txirlo bola txapelketaren hirugarren jardunaldian. Eibartarra bakarrik izan zen bost txirlo botatzen eta bere atzetik geratu ziren, laukin, Ganix Rodriguez eta Bittor eta Oier Ugarteburu taldekideak eta San Migueleko Angel Ibarluzea eta Iruzubietako Jesus Mendibe. Bihar txapelketako azken jartialdia izango da Bolibarko Iruzubietan, eta txapela sei lagunen arteko borrokan erabakiko da: oraingo Asola Berriko Bittor Astigarraga doa aurretik, eta txirlo bakarrera du Jose Antonio Nuñez (San Andres), bira Sebas Aranzabal (Elgeta) eta Iñaki Burunza (San Andres) eta hirura San Migueleko Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea. Taldeka ere Asola Berri da onena eta zazpi txirlora dago San Andres.



Lider aldaketa foball-zaletu torneoan

Ligako bosgarren jardunaldiko Bar Txoko eta Alkidebaren arteko partidua lider aldaketa ekarri du 38. edizioko txapelketaren sailkapenean. Orain arte partidu guztiak irabazitako Alkideba makurtu egin behar izan zuen Txokoren aurrean eta Alvarok lortutako bi goleak gorenera igo dute bere taldea. Zazpi partidutik hiru berdinketarekin amaitu ziren eta sailkapena nahiko estu dugu une honetan, orain arte partidurik galdu gabeko lau taldeekin. Punturik gabe, bestalde, talde bakarra dugu: Bar Arkupe.



HONAKO ENPRESEK
 futbol-kamiseten zozketarako
 zenbakietan
INBERTITU DUTE

Amañako
Jaien
alde

KEIN
GROUP

T. Etxebarria, 3 - 2.

ajasbogados

Zezenbide, 4

GE
grupo eibar
inmobiliario

Jose M^e Sert plaza, 10
Donostia

SOMOS
EKINTZAILEEN
AHOLKULARITZA

Eibarko Txikito, 10

LEUKI
AHOLKULARITZA

Ifar-Kale,
943 20 42 91

denolan, s.l.

Muzategi, 1

AVIA

Acitain, S.A. (Barrena, 19)
Estación de Servicio Eibar, S.A. (Torrekua, 2)
Kantoi (Otaola, 13-bis)

e-mailez (eibarcamisetas@gmail.com) eta whatsapp-ez (690 610 715) erosi dezakezu.
 Boletoa eskaneatuta bidaliko dizugu.



JOSU OZAITA & JAIME ALTUNA
(antropologoak)

– 2015ean Juan San Martin beka jaso eta aurreko astean aurkeztu zenuten ikerketa Eibarren. Nolako lan-prozesua izan da?

Antropologia gradua amaitu berritan, biontzat aukera polita izan da lau urteetan ikasitakoa praktikan jartzeko. Ia zero-tik hasita, prozesu gora-beheratsua izan da, baina azken lanarekin oso gustura gaude eta esperientzia positiboa izan da. Behin ikergaia barneratuta, proiektuan jarri ez genituen gai batzuen inguruan barneratu gara, ikerketak hala eskatuta.

– Zer lan irten da ikerketa horretatik?

Alor desberdinak ukitzen dituen lan mardula. Espero dugu gaiaren inguruan etorkizunean egin daitezkeen ikerketentzako baliagarria izatea.

– Zein ondorio nagusi ateratu dituzue?

Batetik, Arimen Gauda eta Gau Beltza

“Kalabazak arima, deabru, sorgin edo etsai bilakatu zitezkeen”

Etnologia izan zen 2015eko Juan San Martin bekaren ikerketa-esparrua, eta Animen Gaudaren ospakizunaren inguruan Euskal Herrian eman den bilakaera eta partaideen diskurtso, bizipen eta praktiken azterketa egiteko proposamena egin zuten Josu Ozaita eta Jaime Altunak. “Alor desberdinak ukitzen dituen lan mardula” aurkeztu zuten Portalean joan den astean, eta UEU eta Eibarko Udalak lana argitaratzeko asmoa dutela adierazi digute. Gainera, gaiaren inguruan hainbat hitzaldi ematen ari dira. “*Polita da ikustea urte eta erdiz buruturiko lanak interesa piztu duela gizartean*”.

izenarekin jai arrakastatsua sortzen ari dira azken urteotan hainbat herritan, eta aurreikusitako gehiago ere sortuko direla. Bigarrenik, orain dela hamarkada batzuk, gaurko adinekoenak haur zirenean, oso ohikoa zen udazkenean zehar (nahiz eta Domu Santu egunaren inguruan gehiagotan egin) arbi eta kalabazak barretatik hartu (edo lapurtu), hustu, aurpegi forma eta kandela batekin bide batzurretan jartzea jendea beldurtzeko iluntasunean. Azkenik, haurrekin egotea oso interesgarria da. Askotan helduen posiziotik begiratzen ditugu gauzak, eta kasu honetan polita eta beharrezkoa izan da eurerekin egotea.


– Ezusteko, bitxitasun edo kontu harigarririk aurkitu duzue prozesuan?

Ezusteko handiena jai hauen inguruan mugimendu anitzak topatzea izan da. Os-

patzeko modu ezberdinak jaso ditugu Euskal Herriko hainbat txokotan eta biziberritzen ari dira. Bestetik, adinekoei egindako elkarrizketetan kalabazak bidez beldurra eragitea oso zabalduta zegoela jaso dugu. Euskal Herriko toki askotan egiten zen, eta iluntasunak presentzia handia zuen testuinguru kristauan. Kalabazak arima, deabru, sorgin edo etsai bilakatu zitezkeen. Eibarko kasua ezagutzea ere polita izan da, aniztasun handia topatu dugulako. Merkataritza-guneek Halloween erabiltzen dute, haur askok kalean Halloween ospatzen dute, eskolaren batean Arima Gauda lantzen dute beldurrezko istorio eta jolasekin, baserri auzune batean bi urte daramatzate Arima Gauda ospatzen baserrietako eske-erronda mozorrotuta eginez, eta bestetik, Gaztaiñerre eguna daukazue, Arimak ondartzeko eguna.

Indalezio Ojanguren lehiaketako sariak banatuko dituzte gaur

Gaur arratsaldean, 19:00etan inauguratuko dute Indalezio Ojanguren XXX. Argazki lehiaketan sari-tutako lanak eta beste hainbat argazki biltzen dituen erakusketa Portalean. Azaroaren 19ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Bestalde, gaurko inaugurazioarekin batera, Indalezio Ojanguren XXX. Argazki-lehiaketako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia egingo dute antolatzaileek.



Irudi berriarekin hasi dute kurtsoa AEK euskaltegian

Errotulazio eta irudi berria estreinatuta hasi dute ikasturtea AEK euskaltegian: muralak margotzen benetan trebea den artistak koloretako spray batzuk eta plantilak erabili sarrerako atea babesten duen pertsiana gaztainondo baten irudiarekin apaindu eta artelan bihurtu du. Muralak Lian izenarekin beharrezko diharduen artista Bartzelonatik etorri da oraingoz gure artean geratzeko asmoz, baina aurretik ere bere lana Eibarren ikusteko aukera izan dugu, Asua Errekan egon zen gaztetxea apaintzeko murala berak marraztu zuen eta.





Aukeratu dute San Andres jaietarako kartela

Aurtengo Sanandresak iragartzeko aukeratu duten kartela Gerard Sancho Novell-ek aurkeztutakoa izan da, "Garabatos y verduras" izeneko. Horrez gain, Leire Kareagak, Iratxe Unanuek eta Asier López Viñaspren osatutako epaimahaiak saria jasotzeko beste bi lan aukeratu ditu umeez aurkeztu dituzten lanen artean: 11 eta 14 urte artekoen mailan Miren Lageren "Mr Txerri!" lanak lortu du saria eta 10 urte artekoen mailan, berriz, Miren Arroitauregiren "Azokatik bueltan" izenekoak irabazi du. Lehiaketaren edizio honetan 60 kartel jaso dituzte antolatzaileek, horietatik 19 helduen kategorian lehiatzeko.



"Linbotarren itzalak ate ostein" ikuskizun literario-musikala gaur

Gaur 20:30ean hasiko da Coliseo antzokian "Linbotarren itzalak ate ostein" izenburuko ikuskizun literario-musikala. Asier Serranoren "Ate osteko itzalak" eta "Linbotarrak" poema liburuetan oinarrituta sortu duten lan honetan Antxon Sarasua, Miren Fernandez eta Asier Serranok jardungo dute taula gainean. Ikuskizunaren ardatza musikagintzan ibilbide luzea egin duen hirukote horren ibilbidearen hamar abesti birmoldatuz osatzen dute. Abesti batetik besterako tartetan poemak errezitatuko dituzte, entzulea bidaia gazi-gozora egitera gonbidatuz. Sarrerak 5 euro balio du.

Aire zabaleko pintura-lehiaketa

Domekan egingo da XL. Aire zabaleko pintura-lehiaketa. Parte hartzeko 09:00etatik 11:00etara bitartean Portalera (Museora) joan beharko da, izena eman eta erabiliko dituzten mihise edo paperak zigiluarekin markatzeko. Marrakzi eta koadroak 14:00ak arte jasoko dituzte antolatzaileek eta egunean bertan aukeratu dituzte saridunak.

Zine-forum saioa

Errusiako iraultzaren mendeurrenaren harira, Alternatibak hori gogoratzeko emanaldiak antolatu ditu hainbat herritan, tartean Eibarren datorren astean egingo dena: martitzenean izango da zine-forum saioa, Portalean, 19:00etatik aurrera: Sergei Eisensteinek zuzendutako "Oktubre" filma ikusi eta gero, horren inguruko eztabaidarako tartea zabalduko dute.



Xabier Mendiaren hitzaldia

Donostian zentro kiropaktikoa duen Xabier Mendiaren hitzaldia emango du Eibarren martitzenean, 18:00etatik aurrera Portalean. "Osasunaren 5 oinarriak" izenburuko saioan kiropaktikaren onurak azalduko ditu eta, horrekin batera, gure osasunarentzat mesedegarriak diren hainbat aholku emango ditu. Gaiarekin interesa duen edozeinek izango du hitzaldia entzuteko aukera, sarrera libre izango da eta.



Zapatuko ipuina liburutegian

Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan, bihar "Hankaz gora" izenburuko kontakizuna eskainiko du Deibiz Ameztuk umeen liburutegian, 18:00etan. 3 urtetik gorako umeentzat pentsatutako saioa izango da eta, betiko martxan, sarrera doan.



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO

(2013-X-25)

Lau urte badira ere gure aldetik joan zarela...

**EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO
IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.**

Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba



ANE URKIOLA

Hazi gaitzen, hasi. HANDIA FILMA

Inoiz pentsatu al duzu zerk egiten zaituen artaldean desberdin? Zerk egiten zaitu handi, ahul, xarmangarri edo arraro? Esan ohi da gizakion erronkarik bortitzena egoera berrietara etengabe egokitzeo gaitasuna garatzea dela. Baita miserableena ere. Baina, itxura denez, hori omen da bizirauteko giltza.

Desafio hori dauka ardatz Aitor Arregi eta Jon Garañok Zinemaldian aurkeztu berri duten filmak. Istoria modu gordin batean dago kontatua, gizatasun eta zintotasun osoz, non mitoa eta errealtatea uztartzen diren. Historikoki XIX. mendean kokatzen da filma, Erregimen zahar eta berriaren gatazkak dirauten bitartean. Baserría VS. Hiria/mundua. Tradizioa VS. Modernitatea.

Gure protagonistak, Elizegitar anaiak, Altzoko baserri batean bizi dira miseria hutsean, baina familia giro "goxo" batean. Baina, halako batean eztanda egingo du euren 'statu quo'-ak, eta bizirauteko, anaiaren zatartasuna merkantilizatzea otutzen zaie, munduan barrera erakutsiz, pailazo bat bailitza, gainontzekoen plazeraren iturri, erdidikulizazioaren prostituta, alegia. Supermerkatuko produktua, 'Talent Show' bateko panpina, duintasuna erabat galdu duen gizakia da Joaquin berria. Baina road movie-ak aurrera egin ahala, protagonistak zein ikusleak konturatuko dira Martin Joaquinizatzen diohala eta Joaquin Martinizatzen. Bidaia arimak fusioatuko baititu, hariak eta euren gabeziak eta desberdintasunak onartu eta elkar maitatzen hasten diren arte. Eurak euren hauskortasunean handiak dira, eta hori ez al da zoragarria? Hotzikarak sentitu nituen une askotan. Eibartarrok oso identifikatuta sentituko gara filmarekin, Eibar bere zatartasunean beti izan baita **HANDIA**, hots, Frankenstein industrial xarmangarria. Mundura egokitzen ere jakin izan dugu eskopeta, bizikleta eta josteko makinak bidez, besteak beste. Ikus-entzule, duda barik, zinematik irtetea, zerbait hazi zaizula igarriko duzu zure barrenean, istorioak eragin egin dizula, bada. Hazi gaitzen, hasi.

Felix Etxeberria elgoibartarrak jasoko du Gure Balioak Saria

Debegesa garapen agentziak 2010. urteaz geroztik sustatzen duen Gure Balioak Saria aurten Felix Etxeberria Larrañaga elgoibartarrak jasoko duela eman dute ezagutzera, "euskarren alde egindako ibilbide luze eta emankorragatik". Saria berari emateko erabakia hartu duen epaimahaiak enpresa arloan zein herrigintzan erakutsitako "ekimena eta izaera ekin-tzailea" nabarmendu ditu, "beti euskara eta euskal kultura ardatz izan dituen". Azaroaren 9an jasoko du errekonozimendua, Mendaroko San Agustin Kulturgunean 18:30ean izango den sari banaketan. Ekitaldian Maite Maiora mendi korrikalariak kirola eta balioak ardatz izango dituen hitzaldia emango du. Saridunak Juan Luis Baroja Collet artistak sari honetarako bereziki diseinatutako eskultura jasoko du. Epaimahai-keen arabera, "euskaltzale amorratua, ekin-



tzaile saiatua eta langile nekazina", Felix Etxeberria Larrañaga "Parapan" (Elgoibar, 1926) bere herriko alfabetatze eta euskalduntzearen, Ikastolaren eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen sorreran eta garapenean "arima eta motorra" izan dela adierazi dute sariaren antolatzaileek. Horrekin batera Danobat kooperatibaren sorreran bere parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan zuen eta, bertan beharrean zegoela, Etxepe lantegia eratu zuen.

Untzagako abesbatza BEC-eko Nagusi azokan

Untzagako jubilatutako abesbatzak emanaldia eskaini zuen aurreko asteko barixakuan Barakaldoko BEC-n, erakustazokan martxan zegoen NAGUSI 2017 azokan. Eibartarrek Bizkaiko beste koro batzurekin batera abestu zuten.



Barixakuak Jolasian-ek eskulan-tailerrarekin hasi du kurtsoa

Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan hilean behin antolatzen den Barixakuak Jolasian programa aurreko barixakuan hasi zen. Oraingon, gurasoek eta euren seme-alabek koloretako kutxa politak egin eta eraman zituzten etxera.

15 ume inguru elkartu ziren ostiral arratsaldean ...eta kitto!-ren egoitzan, gurasoek lagunduta. Giro dibertigarrian eta, jakina, euskeraz, arratsalde polita pasa zuten. Mintzapraktikarako taldeak eskaintzeaz gainera, seme-alabei euskararekiko jarrera positiboa transmititzea ere bada egitasmo honen helburua, Barixakuak Jolasian ekimenarekin batera beste ekintza osagarri batzuk ere eskaintzen ditu Gurasoak Berbetan-ek, hala nola, txangoak, hitzaldiak eta tailerrak. Aurten, besteak beste, munduko janariaren inguruko sukaldaritzatik ikastaroak antolatuko dira eta Sosola baserrira bisita egingo dute. Programa doakoa da eta urte osoan eman daiteke izena ...eta kitto! Euskara Elkartearen.





MALLABIKO Urriko Jaia


Asteburu osoan ospatuko dituzte Urriko Jaiek Mallabian. Gaurko antolatu dituzten ekitaldiak 16:30etik aurrera egingo dira: umeendako jokoak, txupinazoa (18:30), Elizpeko pilota txapelketaren finala (19:00) eta oilasko pintxoan degustazioa (20:00), Rock Brothers Duo taldearen kontzertua (20:30) eta DJ Txurruren saioa. Zapatuan egun osorako egitaraua prestatu dute: areto foballa (10:00), Duetloi txikia (11:00), Mallabiko II. Arda Ferixie (12:00-17:00), Txiki-txef umeentzat (17:00) eta rock kontzertua Hesian, Skakeitan eta Triki-zio taldeen eskutik (22:30). Eta domekarako umeentzat Magiklown ikuskizuna (16:30), txokolatada (17:30), Mus txapelketa (17:00), nesken gomazko "MPB" paleta zirkuituaren finala (18:00) eta Euskal Liga (18:00) antolatu dituzte.



Herrixa Dantzan ELGETARA bueltan

Domekan abiatuko dira berriz Herrixa Dantzan dantzaldiak Elgetako Kafe Antzokian. Maiatza bitartean zortzi dantzaldi izango dira, hilean behin. Horietatik hiru, zuzeneko musikaz. Patxi Monterok gidatuko duen dantzaldi irekia 19.00etan hasiko da (20:30ak arte). Ekimenak Elgetako Udalaren laguntza dauka, sarrera doan da eta parte-hartzea libre. Bestalde, antzokiko taberna itxita dagoenez, antolatzaileek eramango dituzte edatekoak eta jatekoak.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Teresa Elizondo Retolaza. 71 urte. 2017-X-19.
- Luis Gonzalez de Murillo Martinez. 2017-X-19.
- Nerea Sologastua Madinabeitia. 61 urte. 2017-X-20.
- Jorge Borrajo Lopez. 44 urte. 2017-X-20.
- Pedro Valentin Azpiri Mandiola. 69 urte. 2017-X-21.
- Blanca Lafuente Arriola. 84 urte. 2017-X-22.
- Emilia Atxa Txurruka. 84 urte. 2017-X-25.
- Pedro Garate Etxebarria. 86 urte. 2017-X-25.

jaiotakoak

- Lukas Menendez Merchan. 2017-X-11.
- Thais Menendez Merchan. 2017-X-11.
- Aila Astola Diez. 2017-X-16.
- Aitor Gutierrez Cagigas. 2017-X-17.
- Mayerl Y Anahi Leon Moro. 2017-X-18.
- Massin El Hajjami El Idrissi. 2017-X-20.
- Mikel Gutierrez Alvaro. 2017-X-20.

farmaziak

- Barixakua 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 28
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domeka 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 31
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 1
EGUNEZ Lekuenerri (Isasi, 31)
- Eguena 2
EGUNEZ Lafuente (Sostoaarren, 10)
- Barixakua 3
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

1	7	3	4	5	8	6	9	2
9	6	4	1	2	3	5	8	7
2	5	8	6	7	9	3	4	1
6	4	5	9	8	2	1	7	3
3	8	9	5	1	7	4	2	6
7	2	1	3	6	4	9	5	8
8	1	6	2	4	5	7	3	9
4	9	7	8	3	6	2	1	5
5	3	2	7	9	1	8	6	4

2	4		8		3			
	5		1	3	9	2		
			7					
8	7							3
		2				1		
3						6	8	
				3				
		3	9	5	1		7	
	6			2			1	5

Barixakua 27

SARI BANAKETA

19:00. Indalecio Ojanguren XXX. Argazki lehiaketakoa eta erakusketaren inaugurazioa.

IKUSKIZUNA

20:30. "Linbotarren itzalak ate ostean" (Antxon Sarasua, Miren Fernandez eta Asier Serrano). Coliseoan.



Zapatua 28

EIBARKO KANTUZALEAK

17:00. Abesbatzaren emanaldia San Andres zaharren egoitzan (Ospitalean). Ondoren kalejira egingo dute.

ASIER CUEVAS

HERRI-LASTERKETA

18:00. V. Asier Cuevas Herri Lasteketa. Irteera Klub Deportiboaren paretik.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Hankaz gora", Deibiz Ameztu-ren eskutik. Umeen liburutegian.

Domeka 29

LEHIAKETA

09:00. XL. Aire zabaleko pinturaren hasiera. Izen-emateak: 09:00etatik 11:00etara Portalean.

KALEJIRA

11:00. Usartza txistulari taldearen kalejira. Txontan.



Martitzena 31

IKASTEN

10:00. Film baten emanaldia. Unibertsitate Laboralean.

HITZALDIA

18:00. "Osasunaren 5 oinarriak", Xabier Mendiarez kiropraktikoaren eskutik. Sarrera libre, nahi duten guztientzat. Portalean.

HALLOWEEN JAIA

18:00. Umeendako: mozorro-lehiaketa, jokoak... Doan (izen-ematea El Corte Ingleseko Liburu sailean). El Corte Inglesean.

ZINE-FORUMA

19:00. "Octubre" (Zuz: Sergei Eisenstein) filma, eta gero eztabaida. Portalean.

MUSIKA

22:00. "El hombre sin sombra", Mikel Erentxunen kontzertua. Coliseoan.



Eguena 2

IKASTEN

10:00. Bankuei buruzko hitzaldia, Administrazio eta Enpresan lizentziatua den Miren Ros-en eskutik. Armeria Eskolan.

KALETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldea. Untzagako jubilatuetan.

19:30. Abesbatzaren entseua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30/20:30. Odola emateko saioa, odol-emaileen ztat. Anbulatorioan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:30. Periko Iriondoren Nepalgo argazkiak (eta III. kapitulua). Klub Deportiboan.



ORDU ALDAKETA

ASTEBURUKO zapatutik domekarako (urriak 29) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 25era arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.



ORDUTEGI BEREZIA KANPOSANTUAN

Datorren astean, eguaztenean, Domu Santu eguna ospatuko dela eta, kanposantua ordutegi berezian zabalduko dute **urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean eta 2an**: aipatutako egun horietan goizeko **08:00etan zabaldu** eta, etenaldi barik, iluntzeko **20:00ak arte** erango da zabalik.

Erakusketak

Urriaren 29ra arte:

– "PEDALEI ERAGITEN 50-EKO HAMARKADAN". (Armagintzaren Museoa)

Urriaren 31ra arte:

– CONXITA LOPEZ HERRERAREN ARGAZKI ERAKUSKETA. (El Ambigú taberna)

– JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKI ERAKUSKETA. (Portalea jatetxea)

Azaroaren 12ra arte:

– "TINTAREN OSTERA" JON MARTINEN MARRAZKIAK. (Portalea)

Azaroaren 19ra arte:

– INDALEZIO OJANGUREN XXX. ARGAZKI LEHIAKETAN SARITUTAKO LANEN ETA BESTE HAINBAR ARGAZKIREN ERAKUSKETA. (Portalea)

– AMAÑAKO JAI BATZORDEARI LAGUNTZEKO KAMISETAK. (Untzagako Jubilatuetan)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, KOLDO, aurreko domekan 3 urte bete zenuzuen-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, OINATZ, atzo 5 urte egin zenuzuen-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Lur eta Bernaten partez.



Zorionak, KEPA, martitzenian 8 urte bete zenuzuen-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.




Zorionak, EDURNE, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat Asier, Xabat, Urko, aitxitxa, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, LANDER!!, atzo urtebete egin zenuzuen-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Izaroren partez.




Zorionak, AIMAR, bixar 3 urte beteko dozuz-eta! Besarkada potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN! Besarkada eta musu haundi bat, etxekuen eta, batez be, Beñaten partez, zure 5. urtebetetzian.



Zorionak, GAIZKA, domekan 12 urte egingo dozuzelako. Jarraitu hain txintxo! Famelixaren eta, batez be, Garaziren partez.



Zorionak, IGOR, gaur 4 urte egiten dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alain eta Kaien partez.




Zorionak, EDER, bixar 4 urte egingo dozuz-eta. Aitite, amama, izeko, osaba eta Izaroren partez.



Zorionak, GERMAN maittia!, haraiñegun 11 urte egin zenuzuen-eta. Asko maite zaittugu! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IAN. 3 urte zurekin batera hazten. Eskerrik asko hainbeste gauza erakustiarren. Asko maite zaittuen famelixa guztiak.



BENE eta ANTONIO, 60 urte elkarrekin!!!, eta begira zein goxo eta maitakor. Urte on askotarako, bikote, eta patxo haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, LEIRE (hillaren 24an 6 urte) eta JULEN (29xan 2 urte). Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Naiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

28an: 19:45, 22:30

29an: 17:00, 20:00

30ean: 20:30

"Toc Toc"

Zuzendaria: Vicente Villanueva



(2 ARETOAN)

28an: 17:00, 19:45, 22:30

29an: 17:00, 20:00

30ean: 20:30

"La historia del amor"

Zuzendaria: Radu Mihaileanu



(ANTZOKIAN)

28an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

29an: 17:00, 20:00

30ean: 20:30

"Thor Ragnarok"

Zuzendaria: Talka Waititi



(ANTZOKIAN)

28an: 17:00

"Goiazen 4.0"

Telesailaren denboraldi berriaren lehen atala





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai T. Etxebarria kalean (105 m²). 3-4 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi eta balkoi bi. Bizitzera sarzetoeko moduan. Tel. 649-258913.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 688-899813.
- Pisia hartuko nuke Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 628-318570.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 615-761830.

3.2. Errentan

- Lokala salgai edo alokagai J. Etxebarria kalean. 130 m². Erabilera anitzeko egoitia: biltegi, trasteroa... Tel. 647-525990.
- Garaje handia hartuko nuke Urkizua-Matsaria inguruan. Tel. 690-610740.
- Industria-pabilioia alokagai, garabiekin, Elgoibarko Olaso poligonoan. 200 m² + 70 m² solairuarekin (7 metroko altuera). Tel. 649-258913.
- Taberna-jatetxea alokagai Urkizun. Tel. 615-784312.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 622-162798.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-001083.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez, ospitalean eta asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-348090.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak prestatu eta eskolara eramateko. Tel. 688-628235.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 674-687863.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 690-223601.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-521520.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde eta gauzez. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-064084.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-899813.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 678-185304.
- Neska eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-965130.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 691-500787.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 637-322757.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-986019.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-737757.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan Eibarren edo inguruan. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, dendarri moduan... Tel. 631-363056.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 646-796401.
- Neska eskaintzen da lanerako: umeak zaindu, dendarri jardun... Tel. 632-454817.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-245626.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-834329.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-749329.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko goizez. Tel. 632-835745.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-625718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 642-986019.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 603-750518.
- Gizonezko arduratsua eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. 6 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein egunetan. Tel. 676-229560.
- Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-610175.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 632-636069.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-223075.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, paseatzera ateratzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 661-001246.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-061103.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 657-479770.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Eibarren edo inguruan. Tel. 649-258913.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-218828.

4.2. Langile bila

- Dendariak behar dira janari-denda batean lan egiteko. Jornada erdiz. Bidali curriculum Eibarko 16 postakutxara.
- Eibarko Laukolan SL enpresak proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com
- Estetizista behar da Eibarren. Tel. 657-793584
- Kamarera behar da Tiro Pichon jatetxerako. Tel. 656-752658.
- Eibarko instalazio elektriko enpresa batek elektrizitate-ofizialak eta -peoiak behar ditu. Deitu bulego orduetan. Tel. 686-210796.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskakerak

- DBH 3. mailako Matematikak eta Fisika klase partikularrik emateko irakaslea behar da. Tel. 669-293462.

5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrik ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.
- LH eta DBHko klase partikularrik ematen dira. Maila guztiak. Deitu 16:00etatik aurrera. Tel. 663-779231. Asier.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokiak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskakerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv
16.900 €

i20 Fresh MPI 85 cv
8.900 €



i30 Klass TGDI 120 cv
13.500 €

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

IRUN

Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI



Hyundai Gama i30 5 ate: CO₂ emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.
Hyundai Tucson Gama: CO₂ emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com



**HEZKUNTZA
ESPARRUAN**

**4 SAIO
bi egunetan**

**Azaroak 11
zapatua
16:30 eta 19:00**

**Azaroak 12
domeka
16:00 eta 18:30**

SARRERAK SALGAI:
- El Tio Palancas (J. Gisasola)
- Denetik (Urkizu)
- Gozoki (Bidebarrieta
eta Sostoatarren)
8 EURO



RESTAURANTE LASA

MONUMENTU ARTISTIKOA

ERA GUZTIETAKO BANKETEAk OSPATZEKO toki bikaina / 250 LAGUNENDAko JANGELA



www.restaurantelasa.es
943 76 10 55



Ozaeta Jauregia -BERGARA Tel. 943 76 10 55 mail: reservas@restaurantelasa.es